

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

155. zenbakia

1999ko martxoak 12



Euskararen alde Korrika

Foto Sistema



DOMINGO UNANUE, 1 ORDIZIA
(GELTOKIAREN PAREAN)

- X Tinta kartutxoak
- X Inpresora paperak
- X Erabili gabeko CDak
- X Kamara digitalak
- X Opako eta diapositiben eskanerrak
- X Kamarentzat eta ordenadore portatilentzat memoria tarjetak
- X Ordenadoreentzat tarjeta irakurleak

EPSON

**BANATZAILE
OFIZIALA**



ONDAREA ETA TURISMOAREN GARRANTZIA LANDA GARAPENEAN

Zerainen 1999ko martxoaren
22, 23 eta 24an.

NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK

ZERAINGO ONDAREA ETA LANDA
GARAPENA

LANDA INGURUKO KULTUR-
EGITASMOEN GARAPENA

ONDAREA ETA TURISMOA LANDA
GARAPEN PLANETAN

TURISMOA, ONDAREA ETA LANDA
GARAPENA: KASU JAKIN BATZUK

LANDA GARAPEN PLANAK:

INFORMAZIO GEHIAGORAKO EDO IZENA EMATEKO:

Tel.: 943 80 15 05

Faxa: 943 80 16 06

E-mail: mandio@rebestb.es



Kale Nagusia, 36

☎ 943 80 53 11

BEASAIN

ASTE
SANTUA
99



ESKIA

ESKIA - ASTE SANTUA

- Baqueira Beret50.000
 - Andorra43.500
- Autobusa, hotela *** P/E, 5 eguneko erremontea, aseguru eta gidaria

ESKIA - PAZKO ASTEA

- Astun - Candanchu30.500etik
 - Baqueira Beret34.800
 - Andorra34.500
- Autobusa, hotela *** P/E, 5 eguneko erremontea, aseguru eta gidaria

HEGAZKINA + HOTELA

- Londres71.400etik
- Erroma78.900etik
- Mallorca53.800etik
- Estambul56.400etik
- Praga63.600etik

ZIRKUITUAK

- Paris32.400etik
- Konkistatzaileen bidea35.900etik
- Madrid32.500etik
- Algarve30.700etik
- Asturias30.500etik
- artzelona32.400etik
- Cuenca46.400etik
- Portugal31.900etik
- Marruekos52.900etik
- Kosta Urdina40.900etik
- Britainia eta Normandia38.275etik

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Jon Ordoñez, Gabino Murua,
Eduardo Albizu, Agurtzane Biku-
ña, Saroi Jauregi, Iñaki Gürrutxa-
ga, Josune Eskisabel eta Joxepa
Madariaga.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Begoña Aristi, Ordiziako
azokako saltzaile gaztea**

20 urte ditu Begoña Aristik eta Tolosako Aldaba Txiki auzokoa da. Otsailaren azken astetik aurrera, Ordiziako azokan bere postutxoia dauka. Baserritik bizitzeko apustua egin du Begoñak.

Baserriko alaba da eta baserriarekin jarraitu nahi du. Fraisoro nekazal eskolan egin zituen ikasketak eta orain etxean ari da lanean jo eta ke. Azoketara joaten hasi da orain; momentuz, Tolosara eta Ordiziara.

Loreak, etxean egindako menbriloak, intxaurreak eta arrautzak saltzen ditu momentuz Begoñak, negu parte honetan baratzan ezer gutxi egoten baita. Negutegirik ez dauka Begoñak. Botikak botatzearen aurkakoa da. "Nahiz eta produktuak itxuraz kaxkarragoak lortu, ahalik eta botikarik gutxien erabiltzen dut, produktu osasuntsuak lortzeko. Baina jendeak nahiago du itxura oneko

produktua, nahiz eta botikaz beteta egon. Begitik jaten dugu", aitortu digu Begoñak.

Baserritar gazte batek etorkizuna nola ikusten duen galdetu diogu: "nola begiratzaren duzun arabera dago hori. Aberastu ezin zara egin baserritik. Baina nik bizitzeko adina ateratzea eskatzen dut eta baserriko produktua baloratzea behar den bezala, prezio egokiak jarritz. Baserritarra izatea beste edozein ogibide izatea bezala da eta produktua baloratu egin behar da. Jendeak prezioa jaisatea exijitzen du, azken batean, bertako produktua erregalatzea nahi dute".

Gazteak animatu nahi ditu Begoñak hartu duen bideari ekiteko, "elkartzen baldin bagara zerbait lortzea badaukagu, baina banaka ez". Begoñak aitortu digunez gainera, azokan hainbeste "zaharren" artean arraro samar ere sentitzen da.

BOTA BERTSOA



Igor Eguren
(Goierriko bertso-eskolako ikasle ohia)

Korrika 11

'1eta1= 11, zu eta
ni euskaraz'

**Doinua: Zortziko
nagusiko edozein.**

Hamaikagarren Korrika dator behar dugun modukoa. Hamaika lagun omendu nahian a(ha)legin bat tajuzkoa. Konpromisoa gauzatu dadin, atzokoa ta gaurkoa: eskurik esku ibiliko da euskararen lekukoa.

Bihar euskara hitzegin dadin bermerik ez da apika, hargatik gure a(ha)legin dena behar dugu errepika ahoan eta errepidean egon daiteke botika, mende berrira sartu behar da Euskal Herria Korrika.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ordiziako Eliza eta euskara

Ordizian Meza euskaraz entzun nahi duenak badu, igandeetan, lanik asko ordu egokian aurkitzeko.

Larunbatetan, hainbestean: 18:00etan erdaraz, eta 19:00etan euskaraz.

Igandeetan guztiz oker: 9:00etan euskaraz. 11:00etan, nola? Batek dio: "ez da erreza nola egiten duten esatea"; beste batek dio elebiduna dela; beste batek txandaka egiten dutela: igande batean euskaraz eta hurrengoan erdaraz. Gurrupen 10:00etan elebiduna omen da. Igandean euskarazkorra joan nahi duenak, 9:00etakoa kendurik, zeinetara jo behar du?

Gauzak honela, zergatik ez eman igandeetan mezak txandaka bai 11:00etakoa, bai 12:30etakoa? Igande batean, alegia, 11:00etan euskaraz, eta 12:30etan erdaraz, eta hurrengoan alderantziz.

Jakina, planteamendu hori onartzekoa baldin bada! Hau da, Ordizia batean,

zergatik eman Mezarik erdara hutsean? Puntu hone-taz kontsulta egin dudalarik, "Jaunaren Deia" 17. zk. (1966), 24. orria aipatu di-date. Bertan, urte berean Urretxun egin zen Liturgia-ko apaiz-batzarrean eraba-kitakoa dator: "III... 2) Eus-kaldunak eta erdaldunak nasturik bizi diren errietan, Meza guzietan zer edo zer beti euskeraz egitea: ohar, irakurgai, abesti, otoitz...". Eta erabaki hori Euskal He-rri osorako hartu zen. Be-raz, zer esan Ordiziari bu-ruz? Eta, 1999an, ia haur guztiak D ereduan ari dire-nean?

Askotan eztabaidatu bal-din bada Liturgi arrunta ez dela haurrak erakartzeko biderik egokiena, are dese-gokiago gertatzen da haur hauei Ebanjelioaren mezua zabaltzeko erabiltzen den hizkuntza arrotz bazaie. Eta hau etxean bertan seme-alabekin ikusi dut.

*Mari Karmen Iturrioz
(Ordizia)*



Zorionak, Izeba Pilar

Ertzillen denak batuko gara egun batez edonola lau belaunaldi elkarturikan ez da erronka makala urruti duzun anaia ere bidean da berehala berrogeitamar urte pasata a zer nolako ezpala izeba Pilar izango zara egun horretako gala. (Bis)

Zure sendia

URBITARTE sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

UNTXUNDEI garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

TXANDAKA

"Gazte muturtzikiñak halakoak!"

Zertan ari zarete, gazteak? Alde guztietan zuen jokaeragatik ke-xa besterik ez dut entzuten: irakasleak kexaka, gurasoak zer esanik ez, edozein elkartetako kideak, alderdi politikoetakoak, bizilagunak... denak zuekin sututa dau-de!

Egia al da alferkeriak jota bizi zaretela?; egia al da bost axola zaizuela gure herriaren etorkizuna?; ez al zarete zuen gogoia betetzen bestetan saiatzen?; ez al duzue inolako ardurarik hartu nahi, ez etxean, ez eskolan, ez elkarreetan, ez alderdi politikoetan?; ez al duzue etxeko lanik egin nahi, ez egiten ikasi nahi? (etxeko lanak esan dut, eta ez etxerako lanak, hau da, etxean egiteko eskolan agintzen dizkizute-nak); ez al duzue nahi duzuen, gogoak ematen di-zuen, besterik egin nahi?...

Guraso, irakasle, pertsona "heldu": nolako hau-rrak hezten ari gara?; ze balore lantzen ditugu etxe-an, eskolan, kalean, aisialdian?; zertara bultzatzen ditugu haurrak eta gazteak?; zertara behartzen ditu-gu?; zertara animatzen ditugu?; ze eredu eskaintzen diegu?; hitz egiten al dugu beraiekin?; denborarik eskaintzen al diegu, zaunkarik egin gabe, goxo eta lasai egoteko?; eskatzen al diegu iritzirik, ematen al diegu aholkurik?...

Belaunaldi desberdinen arteko ezin ulertua ote da?; beti gertatu da eta beti gertatuko den fenome-noa ote da?... Zenbat galdera! Ni ere zahartzen ari naizen seinale...

Joxepa Madariaga



Korrikan parte hartzeko asmorik ba al duzu?



Alfons Lekuona
33 urte, administraria
tolosarra

Bai, ordutegia ondo badatorkit behintzat. Kilometro bat edo bi egingo ditut korrika.

Rosa Sebastian

32 urte, euskara ikaslea
ordiziarra

Korrikarik ez dut egingo, ez bainaiz entrenatzen ari. Baina ikustera joan-go naiz.



Pedro Jose Zabaleta

40 urte, langabetua
beasaindarra

Bai. Ez dut gehiegi korri egingo bai-na Beasaindik pasatzen denean me-tro batzuk egingo ditut.



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia,
homeopatia, reflexoterapia podala eta
abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta
medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
943 88 13 37
ORDIZIA

oreka



ARESO kalea, 7

943 88 96 86

Ezkontza erreportaiak
%25eko

DESKONTUAREKIN

LAZKAO
ARGAZKI

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ZINEA

LEGORRETA:

Martxoak 15, 'Crimen Desorganizado', 20:30ean, Herri Zineman.

Martxoak 22, 'En lo mas crudo del invierno', 20:30ean, Herri Zineman.

ORDIZIA:

'Quedate a mi lado'. Ostirala 12: 22:15; larunbata 13: 19:30 - 22:15; igandea 14: 19:30 - 22:15; astelehena 15: 19:30.

'Vuelve a casa por navidad... si puedes'. Igandea 14: 16:45.

BEASAIN:

'54'. Larunbata 13: 19:30 - 22:15;

'Entre las piernas'. Igandea 14: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 15: 19:30- 22:15.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Martxoak 12, Tanztaka konpainiaren 'Dakota' antzezlan, Usurbe Antzokian, Antzerki Garaiaeren barruan, 22:15ean. Euskaraz.

ORDIZIA:

Martxoak 23, Ordiziako Urrup antzerki taldearen hiru

GOIENIZ:

Martxoak 25, 'El trono de sangre', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

'El trono de sangre' Akira Kurosawa (Japonia, 1957)

Shakespeare mirestu bezain laudotuak leku berezia du antzerki munduan, baita zinean ere. Bere lanak hamaika aldiz zeluloidean irudikatuak, zuzendari ospetsu eta garrantzitsuak ausartu dira batez ere erronka handi honi aurre egiten, egokitzaile bikainen artean Orson Welles, Kenneth Branagh, Woody Allen eta nola ez, ekialdeko Enperadore deitua, hau da, Kurosawa maisua daudelarik. 'Rashomon' (1950) filmearekin ordura arte ekialdeko zinearentzat itxita zegoen atea ireki ondoren, ondorengo lanek kritika eta ikusleen mirespena haunditzen joan ziren, 'Vivir' (1952), 'Los siete Samurais' (1954) —Estatu Batuetan Western ospetsu batean erantzuna jaso zuena 'Los Siete Magnificos' izenpean— eta 'El Trono de Sangre' (1957).

sketx, Jubilatuen etxean, 19:00etan: 'Ultimar detalles', 'De bureo', 'Erotic stress'.

Martxoak 26, Maskarada taldearen 'Izarretako bitakorra' antzezlan, Herri Antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

BERTSOAK

BEASAIN:

Martxoak 12, Jon Enbei-

ta, Mikel Mendizabal, Ekaitz Goikoetxea, Xabier Nabarte eta Iñaki Murua bertsolariak, Usurbe antzokian, 22:00etan.

EZKIO-ITSASO:

Martxoak 13, Santalutzi-ko Anduaga elkartearen bertsotafaria, 20:30ean: Igor Egueren, Alaitz Sarasola eta Iñaki Apalategi.

OLABERRIA:

Martxoak 13, zikiro eta bertso afaria, 21:00etan. Jon Maia, Angel Mari Peñagari-kano eta Aitor Mendiluze.

ZERAIN:

Martxoak 12, bertso-afaria, Elkarrekin Bertsogintza-aren barruan, Liztormendi elkartearen, 20:30ean. Bertsolariak, J.R. Elorza, X. Nabarte eta J. Barandiaran.

MUSIKA

BEASAIN:

Martxoak 13, Helios Ruiz kantautorearen 'La noche del viajero', 23:30etik aurrera, Zinema tabernan.

OLABERRIA:

Martxoak 12, Mikel Telleria abeslaria Arkupe elkartearen, 22:00ak aldean.

ORDIZIA:

Martxoak 19, Beti Argi musika bandaren kontzertua, Plaza Nagusian, 13:00etan.

Martxoak 20, Michel Ducau eta Catherine Philips Barrrena Kultur Etxean, 22:00etan.

Martxoak 25, Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Barrrena Kultur Etxean, 19:00etan.

SEGURA:

Martxoak 13, Hats eta Etxakit, herriko plazan, 22:30ean.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Martxoak 23, 'Euroa: Europako txanpona' gaiari buruzko hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

LAZKAO:

Martxoak 22, Korrikari buruzko hitzaldia, Maizpide euskaltegian, 20:30ean.


SEGURA:

Martxoak 12, Lizarra-Garazi akordioaren aurkezpena Kultur Etxean, 19:30ean. Hizlariak: Richard Irazusta (AB), J.A. Arrieta (HB), I. galdos (EA) eta Markel Olano (EAJ).

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Martxoaren 14ra, Mikel Errazkinen erakusketa Usurbe antzokian.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Martxoaren 19tik 28ra,
Amaia Casasolaren pintura
erakusketa, Usurbe Antzo-
kian.

Martxoaren 27ra arte, Jo-
su Oregi, Migel Cortes, Jose
Antonio Abaigar eta Simon
Arrigain argazkilarien era-
kusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Martxoaren 18ra bitarte-
an, Nisa Goibururen pintura
erakusketa Barrenan.

Martxoaren 4an eta 9an,
'Sormena eta emakume mar-
golariak' erakusketa Barre-
nan.

OLABERRIA:

Martxoaren 8tik 14ra, Ja-
vier Fernandez 'Goierri:
bere jendea eta bizitza' argaz-
ki erakusketa Bikario- etxe-
an.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 14, ibilaldi
neurtua.

Martxoak 21, Murumen-
dira.

OTSAILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Koaderno gorria**
Arantxa Urretabizkaia (Erein)
- 2- **Egunero hasten delako**
Ramon Saizarbitoria (Erein)
- 3- **Oroitzuz**
Jon Arretxe (Elkar)
- 4- **Eztia eta ozpina**
Patxi Zubizarreta (Alberdania)
- 5- **Hautsa eta maitemina**
Joan Mari Irigoien (Elkar)

DISKOAK:

- 1- **Mikel Urdangarin**
'Badira hiru aste'
(Gaztelupeko hotsak)
- 2- **Amaia Zubiria**
'Hou pitxu hou' (Elkar)
- 3- **La venganza de la abuela**
'La venganza de la abuela' (Gor)
- 4- **Benito Lertxundi EOS**
'Auhon sinfonikoa' (Elkar)
- 5- **Kepa Junkera**
'Bilbao 00,00h' (Resistencia)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia)
943882934.

Martxoak 13-14: Cuesta (Nafarroa Etorbidea, 39 -
Beasain) 943880587.

Martxoak 20-21: Larnaga (Kale Nagusia, 4 - Or-
dizia) 943881828.

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak
goierritarren zerbitzuan

☎ 943 160 120
Joan Iturralde, 5
BEASAIN

langile autonomoentzat:

- ✓ **Kontabilitatea**
- ✓ **Nominak**
- ✓ **Fakturazioa...**

Oposaketan prestaketa:

- ✓ **Nola landu**
- ✓ **Test-ak**
- ✓ **Psikoteknikoa**

Informa zaitetz!

Hautoprobetako azterketak:

- ✓ **Escola graduatua**
- ✓ **Ianbide heziketa**
- ✓ **Selektibitatea**
- ✓ **25 urtetik gorakoentzat**

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Bi urteko zaldi bat ero-
siko genuke. 943-806319.

☐ Seat 124 salgai. Urrez-
ko aukera. 40.000 pezetan.
943-465724. Jabier.

☐ Kotxea salgai: Lancia
Delta. 9 urte. Kolore zuria.
Kristal-jasogailu elektri-
koa. Itxiera zentralizatua. 5
ate. Gasolina: superrera,
berunik gabea. Kaseta opa-
ri. Prezioa: 300.000 pezeta.
943 889052.

☐ Bebe Confort ume-
eserleku tolesgarria salgai.
Aterkiduna. Ia berria.
17.000 pezeta. Mahaian jar
daitekeen jateko aulkia
opari. 943-889052 - 630-
848327.

☐ Bebe Confort ume-aul-
kia salgai. Urdin iluna eta
barra kromatuak. Berria.
Aulki bererako bi zaku
opari. 35.000. Eguerdietan
eta gauean. 943-889052 -
630-848327.

☐ Bigarren eskuko des-
brozadora (Kawasaki
TG33) salgai. 943-889051.

Etxebizitzak:

☐ Pisua salgai Zegamako
Txarapen. Berogailu zen-
tralarekin. 943ç593478.

☐ Pisua salgai Beasaingo
Kale Nagusian. Handia eta
berritua. 943 880523.
Gauetz deitu.

Lana:

☐ Neska euskalduna be-
har da tabernan lan egiteko.
943 160471.

☐ Neska bat behar da ta-
bernan lan egiteko. 943
883180.

☐ Trikitixa talde batek ba-
jista bat behar du. Pertsona
arduratsua. Interesatuak
deitu telefono hauetako ba-
tera: 943 180408 edo 943
180334 (arratsaldez).

☐ Ikaztegietako herriko
ostatu-taberna ustiatzeko
lagunen bila dabil bertako
Udala. Baldintzak eta gai-
nerakoak elkarren adosta-
sunez finkatzeko jarrera
irekia du Udalak. 943
653329.



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

Etxegarateko lur-jabeon protesta

Baserritar edo lur-jabe talde batek, mendate honen bikoizketari buruz, hausnarketa askoren ondoren, gure ezadostasuna azaldu nahi dugu. Bi atal garrantzitsuenak jorratzen saiatuko gara: bideak harrapatzen dituen luraren prezioak; eta gelditzen diren eremu edo terrenoetan, geldituko diren bide edo sarrera-irteerak. Ez da gure ametsa, ez da gutxiagorik ere, errepidearen bikoizketari oztoporik jartzea; denok beharrezko ikusten dugun eraikuntza delako.

Gure ustez, lurari eman diozuen balorea oso eskasa da; Nekazal Ganbarak, erreferentzia gisa, erabiltzen dituen salneurrietan, behereneko mailan gelditzen direlarik. Esaten duzuenean, adibidez, pinudiko lur metro karratuak hirurogeita sei pezeta ordaintzea asko dela, guk, galderatxo batzuek egingo dizkizuegu: zuetako zeinek salduko zenutekete metro karratu lurra baso erdi bat ardoaren prezioan?; edo ur botila txiki batek merkatuan balio duen prezioan?; edo otordu xume baten berrogeitik batean?; edo edozein etxetan ordu beteko argi indarrak kostatzen den prezioan?

Esango duzue, merkeago saltzen direla hainbat lekutan; eta baliteke egia izatea. Bakoitzak bere borondatez berearekin nahi duena egitea libre da, nahi baldin badu opari edo donazio bezala eman ere. Gure kasua ez da hau, ez ge-neuzkalako gure terrenoak salgai, baina kasu hau dela eta, desjabetuak izan gara.

Lurra da, gizadiaren zutabe nagusia. Zoritzarrez ohituak gaude lurra mesprextatzen eta bere balorea hutsaren hurrengo neurritara jaisten, baserritarren eskutik denean behintzat. Baina lurrik gabe

ez guke gaur ditugun janari asko izango; eraikuntza askok, non oinarriturik izango ez luketen bezalaxe. Lurrik gabe ez dago jabetza eskriturarik; luraren gainean dagoena lurarena da.

Gure lurak ez dira aparteko aberastasun edo dirutza bat balio duten patrimonio berezi bat; gure ustiategi edo esplotazioak behar dituen "konplemento" edo lan tresna batzuek baizik. Edozein langilek bere soldata irabazteko behar duen bitarteko bat bezalaxe. Gaur egun gehienak, zuhaitzi edo pinudi baldin bada ere. Nork daki, hemendik urte batzuetara, berriz belardi bihurtu beharra ez ote den izango, lehen ziren bezalaxe. Hau ez dugu esan betegarri bezala, eta arrazoitzen saiatuko gara.

Europako "nekazal politika" erabakiko duen 'Agenda 2.000' ospetsua iristear dago eta itxura guztien arabera, martxoan hartuko dira, gutxienez beste sei urtean, Europako "nekazal politika" zuzenduko duten neurri eta erabakiak. Bertan, aurrikusten denez, gure produktuek behe-rakada nabarmena jasango dute. Adibidez, haragia % 30 eta esnea % 17 jaitsiko direla nahiko garbi ikusten da.

Esango duzue, zertara dator "rollo" hau dena orain? Eta gure iritziz erantzun erraza dauka: gure produktuak neurri horietaraino jaisten baldin badira, ez da posible izango orain arte bezala kanpotik ekarritako jan askorekin ganadua mantentzea, galere-tan sartuko ginatekelako, behiko edo pertsonako. Horregatik ikusten dugu, inoiz baino beharrezkoago "etxeko lurretan", ahal den janik gehien eta kalitaterik oneneko sortzea.

Errepideak harrapatzen duen lurak, ez dauka erremediorik nonbaitetik egin behar denez. Baina gu gehiena kez-

katzen gaituena eta bigarren puntuari helduaz zera da: nola geldituko diren lotuta edo "komunikatuta", betidanik errepide hortatik sarrera-irteerak izan dituzten eremu edo terreno horiek?

Errepideak harrapatzen dituenak baino askoz eremu zabaloagoak dira Ataungo mugara arte Idiazabalek Eki-Hegoaldek dituen lur sailak eta orain nola "komunikatuta" gelditzen diren, halako erabilerak izango dute hemendik aurrera; honen arabera, beren balorea eta emankortasuna asko aldatu litekeelarik. Adibide txiki bat jartzearen: gure herri bost edo sei kilometro dagoen terreno batera joateko, Etxegarateraino joan eta bueltan etorri behar da, beraz, terreno horren erabilera mugatua dago, ezin litekeelako traktore batekin edo ganaduarekin horrenbeste bide alperrik egin, dagoen arriskuarekin gainera.

Beraz, derrigortuta geldituko ginateke landare motaren bat aldatzera. Gure ustez, planoak eskuan eta obrak hasi zorian daudenean, aldaketaren batzuek ez baldin badira egiten, nahiko "ilun" ikusten ditugu sartu-irteera horiek. Errepide azkar batean ez baldin badago sartu-irteera zuzenik egiterik, guk uste dugu bide paralelo edo pareko bat, eta gainetik edo azpitik, edozein ibilgailu edo ganadu pasatzeko gai izango den pasadizo bat edo beste egitea izango litzatekeela bidezkoena. Eskatzen duguna, edo gure ustez, arrazoizko irtenbide bat izango litzatekeena, ez dugu uste obraren aurrekontua horrenbeste puztuko lukeenik. Horrelako obra erraldoi batean, eta hainbeste milioi lagunek erabili behar duten errepide batean, ez al da oso apala gure eskaria?

Gauzak egin dituzuen formak ere, gure ustez, merezi du "kritika" bat; Udaletxera,

banaka, lur-jabe guztiak ekarri eta zuek ezarritako kondizioetan sinatzeko, kasi bilerak eta denbora hori ere, aurreratuz zitekeen. Ez daukagu "Albako" Dukesak edo "Inmobiliaria" jabe haundi batek eduki ditzakeen lege gizon edo laguntzaile "juridiko" talderik, baina arrazoiaren duintasunak ematen duen lasaitasuna, eta esateko gogoia daukagu.

Badakigu, gaurko gizartearen anai txi-roak garelako eta gure idatzia basamortuan aldatzen den landarearen antza izango duela, baina ezin gintezkeen ixilik gelditu, gorpil erraldoi batek aurretik eramaten duen pampina bezala eramanda. Sektore hau, zoritzarrez, aspalditik ari da, azken hatsaren aldarria jotzen, urtero ehundaka lanpostu ari dira galtzen eta oso urte gutxiren barruan galdu litezke gehienak.

Hau erabat etorri arte, ez da jendea konturatuko galerearen neurriaz. Hiritar askok galdetuko dute: non dira hemengo paisaia berde eta politak? Ordurako sasi eta zaborraz jantziak izango dira gure mendi eta ibarrak, eta baserritar gehienak, historiaren artxi-boak, irentsiak izango ditu.

Hori bai, horrelako obra baten aurrean "administrazioak" ez du oztopo gehiegirik izango, orduko lur-jabeek ere ez baitute izango guk geure baserriekiko izan dugun atxekimendu edo "sentimentu" hori, eta nolabait, mende batetik bestera eta belaunaldi batetik bestera pasatzen joan dena.

Bukatzeke erreflexio sakon bat eskatzen dizuegu kargu erabakior eta politikoetan zaudetenek Etxegarateko bikoizketa dela bide, Idiazabalgo herri honen etorkizunean oinarrituta erabakiak hartu ditzazuela.

Etxegarateko hainbat lur-jabe (Idiazabal)

ERREZETA



Maribi Dorronsoro
Ostatua
Gabiria

GAZTA TARTA

Osagaiak: gazta freskoa, litro erdi esnegain likido, jogur natural bat, azukrea, gelatina, gurina eta sobatu izeneko bizko-txoak.

Ontzi batean Philadelphia gazta pote bat edo 6 gaztatxiki, litro erdi esnegain likido, jogur natural bat eta lau goilarakada azukre batidorarekin nahastu. Ondoren gelatina nahastu, gelatina behin baso erdi bat uretan urtuta gero.

Molde bezala, sobatu izeneko bizkotxoak papurtu eta berotutako gurinarekin oreka egin eta aurretik ondo nahastutakoa gainean jarri. Apaintzeko, gainean marrubizko mermelada jarri. Hozkailuan sartu ordu pare batez.

AHOLKUA

Ezkontza egunean distiratsu



Josune Eskisabal
Josune Estetika Zentrua

Zure ezkontzaren egunean ederra egotea da helburua. Aurpegiari zein gorputzari dagozkion baliabideak daude.

- Estetika Zentru batera joan, aurpegiko larruazalaren garbiketa egiteko, 'renovateur' produktuarekin hasita, zeinak peelinga egiten du eta ekilore edo girasolaren haziakin eta olio esentzialekin osatua dagoen.
- Gorputzaren tratamendu bezala, bolumena gutxitzen duena proposatzen dut, algen lohian oinarritua, eta gel drenante batekin amaituz.
- 'Solarium' saioak, tonu ona edukitzeko.
- 'Mesolifting' saioa, bitaminen koktelarekin. Tratamendu hau aurpegia perfektu utziko duen printzipio aktibo batzuk txertatzean datza. Minik ematen ez duten ziztadatox egiten da, oso azalekoak dira. Ezkontza eguna baino egun batzuk lehenago egitea gomendatzen da, egun horretara distiratsu iristeko.
- Egundauetarako eta egundandirako behar-beharrezkoak diren produktuekin osatutako nezeserra prestatuko dugu: krema garbitzailea, tonikoa, desinkrustagarria, krema hidratatzailea eta nutritiboa, edertasunaren Flash anpoilak, bainuko gel perfumatua eta ildo bereko gorpu-

tzarentzako krema, makilaia oinarria, ezpainetarako barra eta perfumea. Aukeratzeko, eskuaren azpialdean eman eta usaitu aurretik segundu batzutan utzi bere notak garatu daitezten. Lurrin freskoak eta loreenak dira egokienak andregaietarako.

- Ezustekoak ekiditeko, makilaia egundauetarako lehenago probatu.
- Bekainak nabarmendu eta argizari bero edo hotzarekin gorputzaren depilazioa egin.
- Eskuen eta oinen leuntze eta hidratatzearako maskarila saioak.
- Ezkontza egunaren bezperan dena nerbioak dira. Hala ere onena egundauetarako lehenago hasitako lana bukatzea da.
- Estetika Zentrua joan, eskotean eta bizkarrean masaia hartuz nerbio sistema erlaxatzeko.

Egundandia iritsi da

- 8-10 ordu lo egin. Azalak eskertuko du, loaldian oxigenatu eta bere onera etortzen baita azala.
- Jaiki bezain laister gorputzaren luzatzeak edo estiramentuak egin eta aurpegiko beste ariketa batzuk, aurpegia tentsatzeko.
- Begiak arindu, express maskarak begi gainean jarrita.
- Jarraian bainu zoragarri bat prestatu, thean oinarritutako pastila indargarria disolbituz. Urak epela egundauetarako behar du, eta bertan zauden bitartean, aurpegian maskarila hidratantea eta anti-estresagarria jarri.
- Ezkontzako azken ordurarte ez makilatu. Era honetan, azala erlaxatua, distiratsua eta baldintza ezin hobetean egongo da, ezkontza aurretik.



IBAI-ONDO

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



MUJKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea ☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA
Esteban Lasa, 7 ☎ 943 88 80 29
BEASAIN



Martxoaren 8an, Gipuzkoako emakume baserritarrak Ordizian bilduta

Martxoaren 8an, Nazioarteko Emakume Langilearen egunean, Gipuzkoako Ebel-ek, Emakume Baserritarren Elkar-
teak, deituta, urteroko batzarra egin zen Ordiziako Barrena
jauregian. Ehundik gora baserritar bildu zen bertan. Neka-
zari munduko bizitzan normaltasun osoz parte hartu ahal
izatea eskatzen dute emakume baserritarrek. Alizia Stürtz
historialariak Euskal Herria eta feminismoari buruz hitzal-
dia ere eman zuen eta egunari amaiera emateko, bazkaria
izan zuten.

Gabiriako Amelia Jauregi Ebelen Gipuzkoako lehenda-
karia da. Ebelek baserriko emakumea formatzea du helbu-
ru nagusia. *"Formazioa lortzeko etxetik atera egin behar
da eta momentuz hori da arazorik handiena. Gizonezkoen
laguntza piska bat eskatzen dugu. Etxeko lanak erdibanatu-
ta eta asti piska bat atera formazio hori hartzeko"*, adiera-
zi digu Amelia Jauregik. Bestalde, baserrian dauden ema-
kumeak langileztat hartuak izatea nahi dute, Gizarte Segu-
rantza ordainduz. *"Arlo horretan arazo handiak dauzkagu:
batetik arazo ekonomikoa eta bestetik, kontzientzia ere fal-
ta da, gerorako ez pentsatzea"*.

Idiazabal, Zegama eta Segurako Jarrai- ren III. Topagunea

Martxoaren 17tik 20ra os-
patuko dute Idiazabal, Ze-
gama eta Segurako Jarrai
erakundeko gazteek III. To-
pagunea. Jarrairen 20. ur-
teurrenaren eta bizi baldin-

tzen inguruan prestatu dute
Topagunea. Egitaraua:

Martxoak 17: Irlandari bu-
ruzko hitzaldia, Idiazaba-
len, 19:30ean, Kultur Etxe-
an. **Martxoak 18:** Lizarra-
Garaziri buruzko hitzaldia,
Seguran, 20:00etan, Kultur
Etxean. **Martxoak 19:**
Eguerdian poteoa eta ber-



Foru Aldundia adingabeen harrera familien bila

'Familia bila gabiltza' kanpaina jarri du abian Gizartekin-
tzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen sai-
lak. Gipuzkoako hainbat familiari babes eta maitasun bila
dabiltzan adin txikikoen aterpea izateko aukeraren berri
ematea du kanpaina honek helburua. Izan ere, une honetan
Gipuzkoan 169 haur daude egoitza instituzionaletan eta
Foru Aldundiak, haur horiek zentro batzuetan egon beha-
rrean, familia batean egotea nahi du.

Gizartekintzakoek otsailaren 25ean Ordizian adierazi
zutenez, maitasuna behar duen haurra etxean hartzea, *"ez
da adopzio bat, ez eta adopzioaren atariko urrats bat ere.
Haur horrek familia batean egoteak dakartzan abantaila
guztiak izango ditu, baina horren bereizgarritasuna ego-
naldiaren epea mugatua izango da"*. Programaren helburu
nagusia haurrak bere familiakoengana itzultzea da.

Gurasoek momentu jakin batean arrazoi ezberdinenga-
tik seme-alabak zaindu ezin dituztelako, haurrak egoitza
bereziatara eramaten dituzte. Baina batez ere txikienek fa-
milia baten babesaren beharra dutela ikusita abiatu du Fo-
ru Aldundiak hilabeteko kanpaina. Maitasuna behar duten
haur hauek hartzeko familiaren eredu zehatzik ez dago. Ez-
kongabeak, gurasoak, umerik gabeak... guztiak har dezake-
te parte.

Programa horretan parte hartu nahi duenak edo infor-
mazio gehiago eskuratu nahi duenak, 900-713256 telefono
zenbakian aurkituko du laguntza.

tso-bazkaria Segurako Elo-
rri elkarteak. **Martxoak 20:**
Lan baldintzen inguruko ez-
tabaida, poteoa eta kotxe

karabana Zegaman. Idiaza-
balen afaia eta kontzertua:
Skunk, Gerok eta Izurri Be-
rria.

Argitarapen honen edizioa laguntzailerik
En la edición de esta publicación colabora:



fundazio
fundación

Jose Luis Elorza

Gipuzkoako PSE-EEen Gipuzkoako Foru Aldundiko hautagai izateko egindako hauteskunde barruan, Beasaingo Jose Luis Elorzak, botoen %18,2a eskuratu zuen. Emaizen arabera, Gilermo Etxenike izango da zerrendaburua Gipuzkoan.

Aizkorri Parke Naturala

4 urteko atzerapenarekin, Eusko Jaurlaritzak aurrez izendatuko du Aizkorri Parke Naturala, DV egunkariak aurreratu duenez. 20.000 hektarea izango ditu Parkeak eta Arabako eta Gipuzkoako lurak hartuko ditu.

Mungiaiko bertso-paper lehiaketa

Mungian jokaturako San Antontxu I. bertso-paper lehiaketan hiru goierritar bertsolari gazte izan dira sarrituak eta 18 urte bitarteko en mailan sari guztiak Goierriara etorri dira. Iban Urdangarin ataundarrak irabazi du; Irati Goikoetxea beasaindarra bigarrena izan da eta Aitzol Munduate ataundarra hirugarren.

Zerbitzari ikastaroa

Goierri Langintza Eskolan 20 orduko Zerbitzari ikastaroa antolatu da. Astetelehen, astearte eta asteazketan izango da, arratsaldeko 3etatik 5etara. Apirilaren 12an hasiko da ikastaroa eta plazak mugatuak ditu. Matrikula 5.000 pezeta kostatuko da.

Iparra-Hegoa Seguran

Aurreko aleko agitarauan aldaketaxoren bat eman da.

Ostirala, martxoak 12. Haurren eguna. Ziburuko Ikastolako eta bertako haurren arteko egunpasa. Arratsalde txotxongi-loak, magoa, buruhandiak eta txokolate jana. 19:30ean Kultur Etxean, 'Lizarra-Garazi' akordioaren aurkezpena. Hizlariak: Ritxar Irazusta (AB), Markel Olano (EAJ), J. A. Arrieta (EH) eta Iñaki Galdos (EA). Gauean euskal kantutaria Elorripen.

Zapatua, martxoak 13. Goizeko 10etatik aurrera jendaurreko margo sariketa herriko hainbat gune ezberdinetan. 16:30ean Iparra-Hegoa futbol partidua. Iluntzean taloak, Irulegiko

tuko da. Martxoaren 26a baino lehen eman behar da izena, Goierri Langintza Eskolako Lanbide Hastapeneko bulegoan. Telefonoa: 943-889200.

Kimetz

Ordiziako Kimetz emakumeen elkarteak 5. ipuinen lehiaketa antolatu du bere 5. urteurrenean. 16 urtetik gorako edonork har dezake parte. Gaia librea da. Gutxienez 5 eta gehienez 10 orrikoak. Euskaraz nahiz gaztelaraz. Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea kontutan hartuko da. Tes-



Lixiba jotzea antzestuko da aurren ere.

ardoa eta txaranga. 22:30ean hasita kontzertua plazan: Hats eta Etzakit.

Jaia, martxoak 14. Goizeko 10,30etan txistularien goizeresia eta Iturengo joaldunen irteera. 11:00etatik aurrera Iparraldeko eta Hegoaldeko nekazal eta arti-

tuak izengoitiz izenpetuko dira eta kartazal itxi baten kanpoaldean jarriko da kontaketaren izena eta izengoitia. Barruan berriz, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

Lanak maiatzaren 15a baino lehen bidali behar dira Ordiziako Barrena Kultur Etxera (Nikolas Lekuona Enparantza, z/g). Epaimahaia literatur munduko adituek osatuko dute eta beren izenak erabakiarekin batera ezagutaraziko dira. Erabakia ekainean emango da. Bi lehen sari banatuko dira, bata euskaraz eta bestea

sau produktuen azoka. Bertan lixiba jotzea eta artzai tresnen erakusketak. Egurdiko 12etan Entzun Hendaiako abesbatzak meza nagusian abestuko du. Ordu berean Iparra-Hegoa pelota partidua frontoi zaharrean. 13:00ean euskal ezteiak kaleetan zehar plazan amaitzeko. 14:00etan gerizondoaren inguruko ekitaldia. Ondoren, San Joan sua egiten den gunean arretako zikiro jatea. 17:30ean Iparra-Hegoa sokatira saioa. 18:00etan 'mutxikoak' dantzatuko dira plazan.

Zuhaitz enborren erakusketa. Iparra-Hegoaren inguruan antolatu den erakusketa ere ikusgai izango da egun hauetan zehar. Informazio gehiago 14 eta 15 orrialdeetan.

gaztelaraz. Saria, bi arloetan 100.000 pezeta-koak izango dira. 25.000 pezeta-ko akzesita emango da emakumezko batek idatzitako ipuinik onenarentzat.

Hodei lurritan

Ormaiztegiko 14 urteko eskialariak Italian Munduko Txapelketako Topolino sariketa jokatu du, infantil mailan. Munduan maila honetan dagoen txapelketarik garrantzitsuenak da Topolino sariketa eta munduko eskialtzailerik onenek hartzen dute parte. Hodei Iurritan duela 2 urte ere bertan izan zen.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



V. Elkarateak bertsogintzan

Joandako urteetan ekintza honek izan-dako harrera ona ikusita, Goierriko, Tolosaldeko eta Zumarraga-Urretxu-Legazpiko bertso-eskolak elkarlanean Elkarateak Bertsogintzan antolatu dute martxoaren eta apirilaren artean. Bertsolari gazteak jende aurrean trebatzen joatea du helburu Elkarateak Bertsogintzan ekintza honek eta aurten bosgarren ekitaldia beteko du.



Mikel Aranburu beasaindarra, Iker Zubeldia zegamarra eta Urko Egaña azpeitiarra, Zegamako Tartaloetxean, martxoaren 6an.

Bertso-eskoletatik gazte ugari pasatzen da urtero, ezagupide teorikoak eskuratuz. Baina jendearen aurrean kantatzea falta zaie. Hau dela eta, zer hobekiago bailarako elkarreetara joan eta bertso afari baten bitartez publikoarenganako lotsa hori galtzen joatea. Hainbat elkarterekin harremanetan jarri ondoren, hauek baiezeko erantzuna eman eta hor antolatu zen Elkarateak Bertsogintzan.

Urtero elkarte desberdinetako ateak jotzen saiatzen dira antolatzaileak, nahiz eta batzuk badauden urtero errepikatu dutenak. Aurtengo bosgarren honetan 13 bertso-afari izango dira hainbat elkartetan. Goierri dagokionez 8 bertso saio izango dira. Itsasondoko Arbelaitz eta Zegamako Tartalo Elkarteetan aurreko asteburuan egin ziren saioak, martxoaren 12an Zeraingo Liztormendin izango da, 13an Santalutzi-ko Anduagan, 19an Beasainen Korrika dela eta arkupetan egingo den afarian bertsolari gazteak arituko dira, 26an Gabiriako Osinalden, 27an Ataungo Aizkoaten eta apirilaren 17an Ikaztegiako Herrigintzan.

Bertso-afariotan hiruna bertsolari aritzen dira, batzutan gaijartzailearekin eta besteetan gabe. Guztiak iluntzeko 8,30etan hasten dira. V. Elkarateak Bertsogintzan parte hartuko duten bertsolariak hauek dira: N.Elustondo, J.Munduate, L.Ostolaza, J.R.Elorza, X.Narbarte, J.Barandiaran, I.Zubeldia, U.Egaña, M.Aranburu, I.Eguren, A.Sarasola, I.Apalategi, E.Goikoetxea, G.Azkarate, J.Uranga, A.Sarriegi, G.Ojanguren, B.Lizaso, A.Agirre eta A.Alustiza. Batzuk lehen urtea izango dute ekintza honetan parte hartzen dutena. Beteranoak diren beste batzuk ere badaude, ordea.

Antolatzaileek diotenez eskertzekoa da inguruko elkarteek ekimen honekiko azaldu duten borondate ona, bertso afari bat antolatzearen truk bertsolari laguntzen dietelako eta era berean denek une atsegin bat pasatzeko aukera izaten baitute.

Txalo

TXALO Ormaiztegiako IRIZAR S. Coop. ri C.A.F.ek eta beste enpresa batzuk hasitako bi-deari heldu eta Hizkuntza Normalkuntza Plana martxan jarri duelako. Plana Eusko Jaurlaritzak laguntzen du diruz, Elhuyar elkarteak zuzentzen du eta Lazkao Maizpide euskaltegiak dira bertan diharduten irakasleak.

Euskararen aldeko protesta Goierriko Lanbide Eskolan

Ikasle Abertzaleak taldeak deituta Goierri Lanbide Eskolan mobilizazio-tan ari dira ikasleak, "euskararen arloan zuzendaritzak daukan pasibotasunagatik". Hemendik aurrera ekimenak eta mobilizazioak areagotzeko asmoa dauka IAK, "Goierri Lanbide Eskolan euskaraz ikastea lortu arte". Argazkiko mobilizazioa, otsailaren 10ean egindakoa da eta 400 bat lagunek hartu omen zuten parte.

Euskaraz?

Inoiz baino errazago

Egunkaria, EKB eta Goierriko euskaltegiek euskaraz irakurtzen trebatzeko kanpaina jarri dute martxan. Kanpaina euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duten euskaldun eta ia euskaldunei zuzenduta dago eta Lazkao Maizpide, Lazkao eta Beasaingo AEK eta Beasaingo Udal Euskaltegian jaso daiteke informazio gehiago.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Urtero bezala Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Egonaldiak Familia Euskaldunetan programari ekin dio. Programa honek urtean zehar euskategietan euskara ikasten aritu diren ikasleei udan familia euskaldun batekin hilabete batetik hirura arteko egonaldia egiteko aukera ematen die. Era honetako ikasleren bat hartzeko prest dauden familiek 75.000 pta. jasoko dituzte ikasleko eta hileko. Programa horretan familia hartzaile bezala parte hartzeko interesa duenak Goierriko edozein udaletxetara jo dezake.

Kilometroak 99

Orereta ikastolak antolatuko du aurten ikastolen aldeko Kilometroak jaia. Urriaren 3an egitekoa den festak "Bizi Km. 99" darama lelo nagusitzat eta materiala salgai dago jadanik Goierriko hainbat lekutan. Mirentxu liburudenda (Beasain), Gerriko liburudenda (Lazkao), Txaro liburudenda (Zaldibi) eta Baga-Biga eta Maxi Eroski (Ordizia).



Martxoaren 24an Korrika Goierrin

Herrietan sortu diren Korrika batzordeek hainbat ekin-tza antolatu dute Korrikaren inguruan.

● **Martxoaren 12, 13 eta 14an**, kuestazioak eta material salmentak egingo dira herri ezberdinetan, trikitilari, txistulari, txaranga eta abarrek alaiturik.

● **Martxoaren 12an**, Mus txapelketa Mujika jatetxean, 21:30ean.

● **Martxoaren 13an**, herriko artisen jaialdia 22:30ean, Igarondo pilotalekuan.

● **Martxoaren 15ean**, VIII. Txiste idatzien txapelketara txisteak bidaltzeko epea amaituko da.

● **Martxoaren 16an**, euskarazko filme bat ikusteko aukera izango da Beasaingo Usurbe Antzokian, 21:00etan.

● **Martxoaren 18an**, Jon Enbeita, Mikel Mendizabal, Ekaitz Goikoetxea, Xabier Narbarte eta Iñaki Murua bertsolarien saioa izango da, Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:00etan.

● **Martxoaren 19an**, eskualde mailako sukaldaritza lehiaketa izango da Beasaingo plazako arkupeetan, 20:30ean. Ondoren, Korrika afaria izango da, 21:30ean. Afalostean, 'Joxemi eta Alaitz' abeslarien jaialdia.

● **Martxoaren 20an**, Ordiziako Barrena Kultur Etxean, Michel Ducau eta Catherine Philips Iparraldeko kantarien emanaldia 22:00etan.

● **Martxoaren 21ean**, patata tortila lehiaketa 12:30ean.

● **Martxoaren 22an**, Korrikari buruzko hitzaldia, Maizpide euskaltegian, 20:30ean.

● **Martxoaren 23an**, Umeen jolasak eta Korrika txikiak herri ezberdinetan.

● **Martxoaren 23an**, 'Euskararen lehena, oraina eta geroa' hitzaldia, Joseba Intxausti idazlearen eskutik.

● **Martxoaren 24an**, Korrika eguna. Denok Korrika egitera!

● **Martxoaren 28an**, Korrikaren amaiera Donostian. Autobusak antolatuko dira.

Ibilbidea herriz herri

Legorreta:

1 km:	Eredu kooperatiban	12:17.
2 km:	Vitoria / Gasteiz bide seinalean	12:23.
3 km:	Udaletxean	12:29.
4 km:	Legorreta zahar bidegurutzan	12:35.

Itsasondo:

5 km:	Herri sarreran	12:41.
6 km:	Herri bukaeran	12:47.

Ordizia:

7 km:	Hilerrian	12:53.
8 km:	Ganadu plazan	12:58.
9 km:	Herriari buelta eman ondoren, lehenengo semaforoan	13:04.

Lazkao:

10 km:	CAFeko lurrazpiko pasalekuan	13:10.
11 km:	Zuremoton	13:16.
12 km:	Argazki dendan	13:22.
13 km:	Beneditarren liburutegian	13:28.

Beasain:

14 km:	Donostiarako bidegurutzan	13:34.
15 km:	CAFeko elizan	13:40.
16 km:	Erauskingo Kutxan	13:46.
17 km:	Hilerri zaharrean	13:52.

Olaberria:

18 km:	Kateako bidegurutzan	13:58.
19 km:	Poblakuan	14:04.

Idiazabal:

20 km:	Elosegin	14:10.
21 km:	Gasolindegian	14:15.
22 km:	Etxegarate garajea	14:15.
23 km:	Herriari bira emanda, bide zaharrean	14:27.

Segura:

24 km:	Arimasagastiko bide gurutzan	14:33.
25 km:	Kendu kooperatiban	14:39.
26 km:	Eliza parean	14:45.

Mutiloa:

27 km:	Granjan	14:51.
28 km:	Urbizuaran bide seinalean	14:57.
29 km:	Herri kasko sarreran	15:03.
30-31 km:	Liernitik Ormaiztegira	15:09.

Ormaiztegi:

32 km:	Herri sarreran	15:21.
33 km:	Irizar kooperatiban (zaharrean)	15:27.

Beasain:

34 km:	Ormaiztegiko irteeran	15:32.
35 km:	Salbatoren	15:38.
36 km:	Arriarango lehen etxean	15:44.
37 km:	Pizarrerian	15:50.
38 km:	Presatik aurreraxeago	15:56.
39-43 km.ak:	Garindik Mandubira	16:08-16:26.
44-47 km.ak:	Mandubitik Matximentako lehenengo zubira	16:32tik 16:49ra.

IPARRA-HEGOAren BARRUAN MARTXELIÑO ETA EUGENIO ELORZAK OSATU DUTE Zuhaitz-enborren erakusketa Seguran

Zurbano kaleko 12an dago erakusketa, martxoaren 8tik 21era bitartean. 40tik gora zuhaitz eta zuhaixka bildu dituzte. Bakoitzak zein enbor mota eta zein azal mota duen ikusten da. Orain garai txarra da historik ez dutelako, baina dutenei gaineen hostodun adar bat jarri die. Bakoitzak bere fitxeroa du, egurra zertarako erabiltzen zen, noiz moztu behar den eta horrelako datuekin. Fitxero hau denborarekin eta jendearen ekarpenekin osatzen ari dira bi anaiak. Zuhaitz-enborrez gain hauen inguruan dauden hitzak bildu nahi dituzte, galtzear dauden hitzak. Hau dela eta erakusketaren inguruan eman dizkiguten hainbat argibide beraien hitzetan azaldu nahi izan ditugu.

Sagarrondo: Hemen sagar mota asko galduta dago eta beste mota berri batzuk sartu dira. Galtzear dauden sagar mota horien izenak jarri nahi ditugu.

Zumea: Zume horia garai batean txerri-odolkiak eta lotzeko erabiltzen zen. Egosten jartzeko urtero zuma mehea mozten zen.

Zumarra: Galzorian dago. Europä guztian gaitzak jota dago, gaztainondoari gertatu zitzaion bezala.

Urkia: Mugazain bezala erabiltzen zen, mugak markatzeko. Kaikuak eta behientzat uztarriak egiteko ere bai. Idientzat uztarriak pagoarekin egiten ziren. Zimela eta arina da urkia.



Aipatu gabe geratu direnak: astigarra, intsusa, arana, artea, pikua, urritza, platanoa, lizarra, udaraoondoa, izeia edo abettoa, pinu larizioa, pinu alertzea, haritza, eukaliptua, indiagaztaina, makala, agina, zumalakarra, ezipela...

Elorri zuria: Seguran San Juan egunean elorri zuriarekin egindako gurutzea jartzen da etxeetako ateetan. Beste herri batzuetan lizarra jartzen da. Elorri zuritik xextratu edo txertatu liteke udarea eta mizpirea. Elorri zuriaren arantzaren zulatua sendagarria dela esaten da. Txakurrari edo ardiari sugeak heltzen badio, elorri zuriaren arantzarekin zulutzen da zikina ateratzeko. Trumoa eta tximistarekin elorri zuriaren azpian lasai egon omen liteke, ez omen die beste zuhaitzek bezala tximistei tiratzen.

Elorri beltza edo arantza beltza: Bere fruitua arantxanbiloa edo basarana da, eta patxarana egiteko erabiltzen da. Elorri beltzean arana xextratzen da. Garai batean hesia egiteko alanbrearen

ordez erabiltzen zen.

Astalarra: Larrosa silbestrea da. Pepita gorria ematen du eta hauek anisetan jarri eta tripatatik gaizki dabilenean hortik kopatxo bat hartu eta segituan sendatzen du.

Otea: Hiru izen erabiltzen ziren: otea, otakie eta añao-tea. Añao-tea, urteko altsuma da. Otea handiagoa da eta otakie honen enborra da. Lehen otariek estimazio handia zuten. Sugile ona da eta karobietan gar asko behar zenez otea erabiltzen zen. Añao-tea ota-askan txikitu eta ganaduari ematen zitzaion jateko.

Karraskiloa: Ez da egur haundia, tortoska da, harkaitzean etortzen da. Nik ezagutzen ditudala Seguran pare bat egongo dira, Barbaris aldean gehiago dago. Azala

kendu eta enbor puska bat gordetzen da eta katarroa edo gripea dagoenean aizko-rarekin ezipal batzuk kendu eta egosten dira, ur gorri-gorria ematen du eta egunean katilu pare bat hartzen da. Honek odola mehetzen du.

Erramua: Erramu egunean bedeinkatzen da eta etxean gordetzen da urte guztian eta trumoa dagoenean Santa Barbarari erreztatu eta sutara hosto batzuk botatzen dira. Lixibea egiten zenean ere sutako hautsari erramu bedeinkatuaren adartxo bat gehitzen zitzaion.

Arkaxia edo akazia: Egur gogorra eta oso bihurkaitza da. Hesolak egiteko erabiltzen da.

Mizperaondo: Bere hezurretik etortzen da baina normalean elorri zurian xextratzen da. Euskal makilak egiteko erabiltzen da, oso egur gogorra da. Mizpera da ustelduta jaten den fruitu bakarra.

Zuhandorra: tartaka bat da. Aizkoetako Joxek esan zidan kabilak egiteko erabiltzen zela. Gurdiaren pertikari sartzen zaion ziria da kabila, guk gorostiarekin egiten genuen. Egur gogorra denez zuhandorrarekin egindako makilaren bat ezagutu dut gure etxean.

Lertxuna: Hosto txikia du, makalaren tipokoa da. Basoetan ateratzen da bere kisara, ez da makala bezala aldatu behar. Toki jakinetan bakarrik ateratzen da. Oholak egiteko erabiltzen zen. Lertxunaren itzala freskoagoa da. Esaera da, 'lertxunaren ostoa beti dantzan'. Haize tantorik ere ez badago ere, lertxunaren hostoa beti mugimenduan ibiliko da.

Enborreko eraztunak

Enbor bateko eraztunek zuhaitzaren adina adierazten dute. Zuhaitz askok udazkenean hostoa galtzen dute eta lanik (fotosintesiari) ezin eginik gelditzen direnez, ez dira batere hazten. udaberrian berriro, hostoberritzearekin batera abian jarriko dira eta udazkenerarte hazi. Urtaroekin batera, haztearen edo ez haztearen arabera alegia, egurrak kolore desberdina hartzen duenez, urteroko eraztunak garbi ikusten dira. Enborrak egutera aldetik beti gehiago irabazten du eta eraztun zabalagoak izaten ditu eta laiotzetik estuagoak.

Gorostia: Pepita gorria du eta txoriek oso gustoko dute. Ugaltzen ari da, baina eguberrietan galerazi ezean dauden denak desagertuko lirarteke. Egur gogorra da eta makilak egiteko erabiltzen da.

Gaztainondoa: Gaztina saskiak sortzen dira baina zaharrak erabat galdu dira gaitzak jota. Egur bezala, oso beta dotorea du, altzarigintzan eta beste hainbat zereginetan oso estimatua da.

Lauzurianoa: Pinu mota bat da. Oso egur arina da eta ebakitzeko, berriz, oso zimela. Eskailerak, telefonikako posteak etabar egiteko erabiltzen zen. Gaur egun gehien muga bezala aldatzen da. Lehen mugarriaren ondoan urkia aldatzen zen.

Pinu intsinisa: Lehen enbajalerako eta papeleretarako bakarrik erabiltzen zen. Baina orain geroz eta estimazio handiagoa du. Lantzeko egur gozoa eta aguro etortzen dena, 35 urtetan botatzeko moduan daude.

Sahatsa: Bi mota daude, bat horia edo hosto haundia eta bestea berdea edo hosto txikia. Lorea ere ezberdina ematen dute eta garai ezberdinean loratzen dira. Eskuarak, astokartolak eta horrelakoak egiteko erabiltzen da egurra, arina eta zimela baita. Oso haritsua da gainera.

Haltza: Erreka bazterretan ugari dago. Berez egur makala da, sutarako eta erabiltzen dena baina bere garaian, maiatzeko ilberrian, botaz gero oso gogorra izan behar da.

Gerizondoa: Altzariak egiteko erabiltzen da nagusiki, oso egur fina da eta kolore gorriskara polita du.

Hostazuria: Gehiena hemen inguruko kantera batean



Behin Martxeliño mendian buelta bat emanda zetorrela, harizti batean umeak jolasean zebiltzan eta *"hauetako bati zera entzun nion: 'hok dituk pinu haundik'. Nik ez nien ezer esan baina pentsatu nuen, 'hauei denak pinuak iruditzen zaizkie'. Orduan sortu zitzaidan erakusketa hau egiteko ideia. Dakiguna baserrian jaso duguna da, eta jende helduak oraindik dakiena"*.

Bitxikerien artean ikusgai daude, arkasa, okilak zuloa egindako haritza, txori hapiarekin huntza, zuhaitza botatzeko epaia nola egiten den, mugarrei nola azpian, lurpean, teila kaskoa jartzen zitzairen, beste inguruko harrietatik ezberdintzeko...

Marxeliñoren ustez, *"Zuhaitzak ez dut uste galtzearen daudenik, baina bai hauen inguruko hizkuntza. Egurra printzatuta egotea terminoa galtzen ari da. Orain gazteek ez dakite egurra pitzatuta eta printzatuta*

mailuen kirtanak egiteko erabiltzen zen. Karroen gurrupiletako erradioak egiteko ere erabiltzen zen. Egur gogorra da. Zuhaitz koxkorrak dira, hostoa azpitik zuri-zuri handiekin. Altzarian eta badaude, Seguran oso gutxi.

Intxaurrendoa: Intxaur zaharrak mamia beltzagoa izaten du. Noiz eta zaharragoa, balio gehiago du altzariak egiteko, bestela eskopeta kuletak egiteko eta erabiltzen da. Intxaurrendoa ez da edozein lekutan ateratzen. Esaten da intxaurrendoa erreka uraren hotsa eta sukaldeko erroarioa entzun behar dituela.

Ametza: Haritzaren antzekoa, azala lakarragoa eta hostoa koska handiagokekin du. Araban asko dago. Segurako Amezti izeneko menditik ekarri dugu.

Norteko haritza edo haritz amerikarra: Bere garaian botaz gero egur ona da. Batez ere barrikak egiteko erabiltzen da. Zahartuz gero tipulea egiten zaio, pinu intsinisari bezala. Hau da, zahartuta zerratutakoan urteko eraztunetatik libratu egiten da, tipula bezala.

Pagoa: Egur ederra du. Uretan usteltzen ez den egur bakarra da. Donostian, Artzai Ona eta hainbat eraikuntzek

egotearen artean dagoen ezberdintasuna. Egurra arrastaka jaisteari egurra lorren ekartzea esaten zitzaion. Zuhaitza botatzen denean, adarrei zarba esaten zaio, gero zarba hortatik aakie, makila, egiten zen, eta geratzen zena txotxa zen. Txotxa etxean erretzeko izaten zen eta aakie kalean saltzeko. Mintegia, bere kasa arbola ugari-ugaria etortzen zen txarrea eta horrelakoak zer ziren ere ikusgai jartzeko asmoa

daukagu".

Esaten da hosto koskaduna duten zuhaitzak ilberan bota behar direla eta hosto borobila dutenak ilberrian. Honek zerikusi handia du: bere garaian bota ezean pipiak askoz lehenago jotzen du. *"Kontutan hartu horrenbeste gizalditan, zuhaitzak ze garaian bota behar ziren ondorioetara, beharrrak aginduta iritsi direla eta orain galtzearen dago hori dena. Gaur egun horri ez zaio begiratzen eta egurra tratatu egiten da. Lehen basoak handiak ziren eta pipiak ez jotzeko egurraren giharrea erabiltzen zen, hori oso gogorra duenez ez du pipiak inoiz jotzen, mamia jotzen du"*, dio Eugeniok. Egurrak barrutik kanpora, giharrea, mamia eta azala ditu. Zuhaitza ondo lehertzeko urtebetean adar eta guzti utzi behar omen da eta gainera arindu egiten omen da. Horrela adarrek humedadeari tira egiten baitiote.

azpian ura dutenez, zimenduak pagoarekin eginda omen dituzte. Uztarriak egiteko pagoa, normalean printzatuta izaten zen eta uretan, askan edo, edukitzen zuten. Oraindik Segurako baserriren batean han egongo da uretan. Txondarrean ikatza egiteko ere pagoa erabiltzen zen.

Eskardura: Izen hori galduta dago, alanbrerik ez zegoen garaian itxiturak egiteko erabiltzen zen. Elorri zuria, arantza beltza, sahatsa, lizarrak eta horrelakoak, itsasten errazak direnak jartzen ziren. Gaur egun ondo zaindutako eskara gutxi geratzen da.

'Ondarea eta turismoaren garrantzia landa garapenean' nazioarteko jardunaldiak Zerainen

Zerainen 'Ondarea eta turismoaren garrantzia landa garapenean' nazioarteko jardunaldiak izango dira martxoaren 22tik 24ra, auzolanean oinarritutako Europako Feder fondoetako Reveil proiektuaren barruan.

Reveil (Nekazal ingurunekeko Industrial Historiaren Balorazio Ekonomikoaren Sare Europeo) proiektu honetan Frantziako Dordoniako Seignac-Lédrier eta Greziako Xanthi herriak daude sartuta, Zerainekin batera. Hiru herriek ondarea berreskuratzeko diru-laguntzak jasoko dituzte Europatik. Hiru herriek, ondarea berreskuratu nahi dute, beti ere turismoari begira: Zerainek Aizpeko meategietako segurtasun neurriak jarriko ditu; Xanthik tabako enbriagarriaren ingurunea egokitu du eta Seignac-Lédrieren burdinolak agerrarazteko bi-deska bat sortuko du.

Jardunaldi hauek elkarlanean proiektu honetan kokatu behar dira. Jardunaldi hauek Euskal Herrian eta Europa osoan lantzen ari diren proiektu desberdinen kudeaketa erak azaltzeko asmoz antolatu dira.

Martxoaren 22an inauguratu dira jardunaldiak, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren eskutik. Zeraingo Alkatea, Antonio Garcia, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Roman Sudupe eta Frantziako eta Greziako ordezkariak ere inaugurazio ekitaldian izango dira.

Gainerako bi egunetan, 5 lan saio izango dira puntapuntako gonbidatuekin. 5 gai landuko dituzte: Zeraingo ondarea eta landaren garapena; landa inguruko kultura egitasmoen garapena; ondarea eta turismoa landa garapenaren planetan; turismo, ondarea eta landa garapena: kasu jakin batzuk; eta landa garapenaren planak: kasu jakin batzuk.

Zeraindarrek inguruko

herrietako alkate, zinegotzi eta teknikariak gonbidatu nahi dituzte, turismoak landaren garapenean duen garrantziaz jabetu daitezen.

Apustu egokia

10 bat urte dira Zerainek ondarea berreskuratu eta turismoaren aldeko apustua egin zuela. Galtzeaz zegoen ondarea, San Blas ermita, kartzela, Elizako gurutzea berreskuratu... Ondoren etorri zen baserriko tresnen erakusketa, Zaharriak, antolatutako

ekimena. "Hilabetean 10.000 lagun etorri ziren eta arrakasta hori ikusita, turismoari begira lanean hastea erabaki genuen. Kultur Etxeko ganbaran erakusketa iraunkorra jarri genuen eta horrek sortu zuen Informazio gunea irekitzearen beharra. Hortik, herriko produktuen denda, taberna, ibilbide bereziak... sortzen joan gara".

Lanpostu txiki batzuk sortu dira Zerainen. "Sagar-dotegia ireki da, Lumagorriren hiltzea hemen irekitzea lortu genuen... biztanle kopurua mantendu egin da azken urteotan... eskola eta eguneroko medikua hemen izatea mantendu egiten ditugu... Turismoak zenbaterainoko eragina izan duen ez

dakit. Baina turismoari begira galtzeaz zegoen azpiegitura bat prestatu egin dugu", esan digu Antonio Garcia alkatea. Zerainek adina jende inplikatu duen herririk ez dela egongo inon gaineratu digu.

Inguruko herriak, "Segura bereziki animatuko nuke turismoaren aldeko lana egiteko. Aukera handia dauka, lana eginez gero. Horrek guri ere mesede ikaragarria egingo liguke, baita aurrez izendatutako duten Aizkorri Parke Naturalak ere. Idiazabal, Segura, Zegama eta Zerainen artean, turismo berdearen mailan, potentzial garrantzitsua osatuko genuke. Zeraindik urtean 20.000 lagun pasatzen dira".

Herri bizia izateak jendea Zeraina bizitzera etor dadin bultzatu du. Bertakoak ere bertan gelditzen ari dira. Alkateak gogoratu digunez, "orain dela 22-23 urte gazteek herritik alde egiten zutela eta, kezka sortu zen. Gazte talde txiki bat sortu ginen, herrian gelditu nahi genuela erabaki genuenak. 24 etxe egin ziren orduan eta jendea bertan gelditzen hasi zenean hasi zen Zerain pizten. Orain kanpoko jendea dator Zeraina. Urbanizatu-tako lur guztiak okupatuta daude dagoeneko. Herri bizia delako omen dator jendea Zeraina. Jende gazte dator gainera bizitzera".

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22

Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10

☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

Zerain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN

ATAUN

Iker Sukia: noraino?

Ataundar honen jardunak mugagabea dirudi. Horren adierazgarri aurtengoan egin dituenak. Urte hasieran Euskadiko errekorra hautsi zuen 18,49 metroko marka ezarriaz. Ondoren, "promesa" mailako txapelketa irabazi zuen Bartzelonan.

Hau gutxi balitz, otsailaren 20an Sevillan jokatu zen pista estaliko Espainiako txapelketan 2. postua lortu zuen Manolo Martinezen atzetik. Proba honetan, 7,260 kiloko pisua 18,35 metrora bota zuen. Baina Ikerren lorpenak ez dira horretan geratzen. Otsailaren 27an, Euskadiko errekorra bigarren aldiz haustea lortu baitzuen Zaragozan ospatu zen txapelketan. Marka berria: 18,59 metro!

Adituek Ikerren erregulartasuna azpimarratzekoa dela diote. Bai Espainiako txapelketan zein Zaragozako proban egin zituen bosna jaurtiketatik guztiak, 18 metrotik gorakoak izan ziren.

Oraindik ere martxoan gaudela kontuan izanik, nork daki zer ikustekoak gauden urtebukaera baino lehen. Urte askotarako Iker!

Ataun Generali bikain

Baina pisuan izan ezik, futbolearen ere badugu berri aipagarriarik. Iazko denboraldian kategoriaz igotzea lor-



Argazki lehiaketa 99

Azken urteotako lege, argazki lehiaketarako deialdia egin berri du Udalak. Ataungo txokoak adierazgarri dituzten 3 argazki aurkeztu behar dira gutxienez eta, 9 gehienez. Argazkiak Udaletxera 1999ko abenduaren 1a baino lehen eraman behar dira. Hiru saritu izango dira, lehenengoari 60.000 pezeta emango zaizkiolarik. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo da. Zure lanak erakusgai egon daitezen bete beharreko baldintzen xehetasunekin, banatu berri ditu Udalak liburuxkak.

tu zuen talde honek ere, ez baitu meriturik falta. Ataun Generalik orainartean jokatutako 19 partidutatik, 16 irabazi eta 2 baino ez ditu galdu. Joseba Kerejetak zuzentzen duen taldea 5 puntuko aldeaz, lehenengo doa sailkapenean.

Koadrilarteko areto-futbol txapelketa 99

Eta kirol berriekin amaitzeko, koadrilarteko areto-futboleko txapelketa aipatu behar. Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, aurtengoan

ere antolatu baita. 18 taldek hartuko dute parte eta larunbat arratsaldean jokatuko dira partidua.

Gipuzkoako Odol-emaileen Batzarra

Urtero bezala, Gipuzkoako Odol-emaileen elkarteak Batzar Nagusirako deialdia luzatu du. Aurten Beasainen ospatuko da apirilaren 25ean Batzarkideei ongietorria emanez, goizeko 11etan emango zaio hasiera egunari Antzizar kiroldegian. 11:15ean hasiko den

Batzarra eguerdiko 1a arte luzatuko da, tartean apaiz odol-emaile batek meza eskainiko duelarik. Batzarrari 12:30ean emango zaio jarraipena odol-emaileei dominak emanez. 25 aldiz odola eman eta domina jasoko dutenen artean Milagros Arza, Nikolas Goikoe-txea, Felix Auzmendi, Ima Aramendi eta Virginia Martinez ataundarrak izango dira. Loinatz abesbatzaren emanaldiaren ondoren, bazkaria izango da kiroldegian bertan. Bazkarira joateko asmoa duzuenok martxoaren 25era arte duzue izen-emateko epea.

Deialdi honen harira, Ataungo Odol-emaileen lehendakari den Jose Luis Gorostizurekin hitz batzuk egiteko aukera izan dugu eta berak adierazi digunez, Ataunen, emanaldiko 46 emaile inguru biltzen omen dira. Dena den, elkartearen helburuen artean omen da familia bakoitzetik gutxienez bat odol-emaile izan dadin lortzea. Halere momentuan lehentasuna gu gazteok animatzeari ematen omen dio.

Heriotza

Joan den astean zendu zen Iturritzako Josefa Barandiaran Apalategiren sendiari doluminak.

Agurtzane Bikuña



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

ORDIZIA

'Ordiziara plataforma' etengabe lanean

97ko Eguberriak ziren Ordiziara Plataformak jendaurreko aurkezpena egin zuen eguna. Harrezkero euren helburua lortu nahian tinko aritu dira lanean Plataformakoak eta oraindik ere horretan dira, zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten ordiziar presoek baldintza-peko askatasuna aldarrikatuz. Egun, baldintza hau betetzen dutenak Eugenio Irastorza, Antxon Garcia del Molino, Jokin Zubeldia eta Josu Aierbe dira.

Urte eta piko horretan hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta oraingoan berauek gogoratuarazi besterik ez dizkizuegu egin nahi. 98ko urtarrila eta otsaila bitartean manifestaldi isil eta plurala egitekotan ibili baziren ere, nahi adina atxikimendu lortu ez eta bertan behera utzi behar izan zuten mobilizazioa. Udaberrian sinadura bilketari heldu zioten eta 1.386 lortu zituzten. Zuzenbide Administrazioako Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiari, Zigor Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiari, Estatuko Zuzenbide Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, aipatu lau ordiziar presoak daudeneko espetxeetako zuzendariari eta espainiar estatuko presidentea den Jose Maria Aznarri bidali zitzaizkion sinaduraok.

Ekainean beste plataformakideekin bat eginez, "Korrika Patxi Eskisabel" Gipuzkoako itzuliaren antolaketan parte hartu zuten. Uztaillean alderdiek, Ordiziara Plataformak aurkeztutako udaleko mozioarekin batera, alderdiek aldeztu aurretik onartutako testu bat aurkeztu zuten. Bertan lau preso ordiziarrek berehala aske uzteko eskatzen zen. Herri-



Argazkian ikus daitekeen bezela, Jakintza Ikastolako lehen hezkuntzako neska mutikoak, udaletxeko arduradunarekin batera, astigarraga eta gaztainondoak aldatzen aritu ziren joaneko otsailaren 26an. Zuhaitz eguna zela eta egin zuten ekintza hau Mariaratz erreka inguruan. Aipatu aintzina Goierri gaztainondo ugari izan zirela jakinik egindako ekimen bat izan dela haur hauena, aurrentzean ere holako zuhaitzak ikusten jarraitu asmoz.

ko jaietan 100 argazki kaleratu zituzten, ondoren Jaur-laritzako Barne Sailera eta aurretik aipatutako erakundeetara bidaliz. 98an San Silbestrean parte hartu zuten presoak eta errefuxiatuak Euskal Herrira lemapean.

Ekainetik hona hamabostero biltzen dira larunbatetan Enparantza Nagusian aipatu lau presoek askatasuna eskatuz. Postalak eta telegramak ere bidaltzen dizkiete presoek eta egun gutxi barru Antxon Garcia del Molino bisitatzekotan dira. Aipatu baita ere asteazkeneko biltzen direla Barrenan Ordiziara Plataformakoak eta lerro hauen bitartez deia luzatzen dietela herriarrei berauetan parte har dezaten. Helburua lortu arte lanean tinko jarraitzeko asmoa dute, gainera, Plataformakideek.

Euskal presoak Euskal Herira

Tituluan aipatutako leloa aitzaikitza hartuta 300en bat lagun bildu ziren joaneko larunbatean herriko kaleetan egin zen manifestazio ixile-

an. Espainia eta Frantziako kartzeletan euskal presoek egoera okerrera doala eta manifestaldiak antolatu ziren Euskal Herriko hainbat lekutan.

Korrika 24an

AEKk antolatutako euskararen aldeko korrikaldia martxoaren 24ean, asteazkena, eguerdi partera pasako da gure herriak. Aurtengoa hamaikagarrena izango da eta Iruñeatik 19an abiatu eta Donostiara 28an iritsiko da, Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren. Goierriko afaria San Jose egunean izango da Beasaingo arkupetan.

Martxoaren 14rako hainbat ekitaldi antolatu ditu Ordiziako Korrika batzordeak. Arratsaldeko 6,30tik aurrera jaialdia izango da Enparantza Nagusian. Bertan umeen jolasak, txalapartajoleak, malabarak, trikitaliak, dantzariak, abeslariak eta abar izango dira. Txokolatejana ere egingo da. Egun bererako kuestazioa dago iragarrita herriko auzoetan. Martxoaren 20rako Mixel Ducau eta Caroline Philips bikotea-

ren musika ekitaldia izango da Barrenan. Hauek bere ekitaldia egiten duten bitartean, Ander Ifus antzeslea bere lana egiten ariuko da Koiote Garagardotegian.

Eskubaloia

Ordizia Eskubaloia Taldeak lurralde mailako lehen mailarako txartela lortu du orain dela gutxi amaitu den ligaxka jokatu ondoren. Bigarren postuan geratu dira Pedro Valor eta "Manris"ek entrenatzen dituzten mutilak eta datorren urtean Gipuzkoako talde nagusienekin arituko dira lehian.

Elkartearteko musa

Herriko 8 elkarterek parte hartzen duten elkarterteko mus txapelketa martxoaren 15a eta 26a bitartean jokatuko da. Aurten antolaketa lanak Jai Alai elkarteri egokitu zaizkio. Elkarte bakoitzeko bi bikotek hartuko dute parte eta multzotako ligaxka jokatuko ondoren, multzo bakoitzeko lehen biek finala jokatuko dute martxoaren 26an.

San Jose eguneko ekintzak

Zaharren egoitzakoek, San Jose eguna bertan dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte egunotako. Martxoaren 15, 16 eta 17an hainbat txapelketa jokatuko dituzte (mus, tute, eskoba, domino, toka...). 15ean baita ere Umore Ona eta San Jose abesbatzek kantatuko dute egoitzan. 18an jaialdi handia egoitzan. San Jose eguna lunch batekin hasiko dute herriko zaharrenek, ondoren meza eta Jakintza dantza taldearen saioa. Ondoren bazkaria eta Juanjo Iturriozekin dantzak.

Aitor Calvillo

ZALDIBIA

'Zaharra' eta 'Pototo'ri omenaldia



Anjel Mari Galarraga 'Pototo' eta Nikolas Mendizabal 'Zaharra' herriko bi gudarrien heriotzaren urteurrenak direla eta (22.a eta 13.a

hurrenez hurren), hauei gorazarre egite aldera, ondoko egitaraua pretatu du Zaldibiko Amnistiaren Aldeko Batzordeak:

Larunbata, martxoak 13: Elkartasun-Eguna.

Asteartea, martxoak 16: Bideo emanaldia, Kultur-Etxean, iluntzeko 9etan.

Igandea, martxoak 21: Oiduiara mendi-irteera.

Goizeko 9etan plazatik atera eta bidean "altxoraren bila" jokoan parte hartu ahal izango da. Helmugan salda beroa banatuko zaie nahi duten guztiei. **12,30etan** ekitaldi nagusiari hasiera emango zaio: txalapartariak, bertsolariak, hizlaria, trikitilariak. **Ondoren**, bazkaria (norberak bere janaria eraman dezala.

Ardoa eta kafea bertan banatuko dira). **3etan:** Abeslariak. **4etan:** Haur jolasak.

1999-2000 Ikasturtea

Dagoeneko amaitu da hurrengo ikasturterako matrikulazio epea Lardizabal Herri Ikastetxean. 1999ko irailan hasi eta 2000ko ekainean amaituko den ikasturtean 11 ikasle berri izango dira herriko eskolan. Hiru urtekoen gelan iaztik dauden 10 haurrez gain beste 3 berri ere izango dira. Bi urterekin hasiko direnak berriz 10 izango dira aurtien.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

ZEGAMA

Aitxuri Herri Eskolako Guraso Elkartek antolatutako, datorren martxoaren 16an, iluntzeko 8etan hitzaldia izango da Kultur Etxean. Hitzaldia: 'Disziplina: umearen jokaeraren mugak ezartzei buruz' izango da. Hizlaria: Olga Padró, Psikologian lizentziatua.

Bartolome deunaren jaiak

Datorren martxoaren 17an, gaueko 9etan, 1999ko Jai Nagusiak antolatzeko asmoz, aurtengo lehen bilera egingo da Udaletxean, besteak beste, egunak zehaztea izango da helburuetariko bat.

Kultur Etxeko ikastaroak

● **Internet:** Udaberria ikastaroz beterik izango dugu Zegaman; esan, Interneten ibiltzen ikasi nahi dutenek aukera izango dutela datorren apirilaren 10 eta 17an ikastaro hau herrian bertan egiteko. Izen-ematea Udaletxean.

● **Lorezaintza:** Aspalditxoan lorezaintzari buruz herrian ikastarorik ez dela egin eta, apiriletik ikastaroa izango dugu. Oraingoan, udaberria datorrela eta kanpoan jartzen diren loreei buruz egingo da ikastaroa.

● **Josten eta ebakitzen**

ikasten: Josten ikasi nahi dutenek edota oihalak ebakitzen ikasi nahi dutenek ere aukera izango dute ikasteko. Talde bakoitzean gutxienezko bat izatea beharrezkoa izango da talde hauek antola daitezen.

Euskara eguna

Urtero bezala aurtien ere antzerki eta abesti ederrak entzun ahal izango ditugu Zinean Aitxuri Herri Eskolako haurren eskutik.

Martxoaren 17an, arratsaldeko 2,30etatik 4etara, Haur hezkuntzako 1go eta 2. mailakoen antzerki bat antzestu eta abestu egingo dute.

Martxoaren 18an, arratsaldeko 2,30etatik 4etara, 3. mailatik gorakoek bertotan egin eta antzerkia antzestuko dute.

Odol ematea, larunbatean

Odol ematea egingo da ohi tokian datorren martxoaren 13an, arratsaldeko 5,30etan. Horretarako prest zaudeten herritarro oraingoan ere bertaratu zaitezten eskatzen zaizue eta inoiz odola eman ez dutenak ere ongi hartuak izango dira. Gogoratu, odola eman baino ordu parte bat lehenago ez dela jatea komeni.

Eduarne Albizu

ANGEL IMAZ

**PINTURA
eta
PAPERGINTZA**



☎ 943 18 70 49

Ondramuño etxea

IDIAZABAL

Garbitasunak

OXEPI

☎ 943 88 96 67 **ZALDIBIA**

Olagi

Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

OLABERRIA

Aste guztian zehar hainbat ekintza izan ondoren, aste-buruan izango dira ekitaldi-rik nagusienak.

Gaur, martxoaren 12an, Herri Eskolako haurrek, antzerkia eskainiko dute Bikario-etxean, arratsaldeko 5,30etan. 'Hontz beldurtia' antzezlan aurkeztuko dute. Jarraian, arratsaldeko 6,30etan, zuhaitz eguna ospatuko da. 7,30etan hasita, berri, nahikoa talo jateko aukera izango da Arkupe elkarte. Txistorrarekin, gaztarekin, txokolatearekin, esnearekin... era guztietara. Talo bakoitza 100 pezeta kobratuko da. Jarrain, Mikel Teilleria Idiazabalgo kantaria-

ren jarduna entzuteko aukera izango da.

Martxoaren 13an, egun guztiko festa izango da. III. Joxe Kerejeta memorialela jokatzen hasiko dira goizean. 11,30etan, haurrentzat, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Baserrian' ikuskizun berria eskainiko dute udal pilotalekuan. Arratsalde partean, 6etan, Alba elkartearekin hitzaldia eta bideo emanaldia izango da Bikario-etxean. Bertan Boliviako artisautza erakusketa txiki bat izango da. Eta eguna amaitzeko, zikiro eta bertso-afaria izango da lu-



dotean, 9etan hasita. Bertsolariak Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Angel Mari Peñagarikano Txartelak herriko tabernetan eros daitezke.

Martxoaren 14an, azkenik, mendi-irteera izango da aurreko egunean goiz eta txintxo erretiratuko direnentzat. Enirio-Aralarrera izango da irteera eta In-

txaustiko iturritainoko bidaia kotxez egingo da. Bestalde, 11,30etan hasita, herriko elkartearen arteko I. Gastronomia lehiaketa izango da. Bakailaoa prestatu beharko dute, bakoitzak nahi duen eran.

Egun hauetan guztietan, Javier Fernandez argazkilaria 'Goierrri: bere jendea eta bizitza' erakusketa ikusgai dago Bikario-etxean. Ordutegiak hauek dira: ostiralean 17:30etik 20:30era; eta larunbat eta igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

GABIRIA

Familia euskaldunak behar dira euskara ikasten ari diren ikasleak hartzeko, hori dela eta eskabidea egiteko epea zabalik dago eta horretarako honako baldintza hauek bete behar dira: familiak gutxienez ere lau kidek osatua izatea eta ehuneko 70etik gorako euskaldun kopurua duten udalerrietan bizitzea.

Eskaera epea martxoaren 23an itxiko da eta eskabideak HABEko bulegoetan edota udaletxean egin daitezke. Egonaldiak uztailan eta abuztuan izango dira eta

familia bakoitzak gehienez ere ikasle bakar bat hartu ahal izango du egonaldi bakoitzeko.

Familiak 75.000 pezeta jasoko ditu etxean hartzen duen ikaslearengatik, horietatik 45.000 HABEko jarriko ditu eta ikasleak beste 30.000 pezetak.

Marketeria ikastaroa

Gabiriako Udalak Marketeria ikastaroa antolatu du interesatuak dauden herritarrentzat. Ikastaroa egur xaflen bidez irudi ezberdinak

sortzean datza eta martxoaren 16, 23, 30 eta apirilaren 6, 13, 27an emango da.

Ordutegiari dagokionez, aipatutako egun horietan izango da arratsaldeko 5.30etatik 6.30etara.

Interesatuak udaletxean eman behar dute izena martxoaren 12a baino lehen, edota telefono zenbaki honetara deituz: 943. 88.07.34

Gabiriako III. Argazki lehiaketa

Aurreko bi urteetan bezalaxe aurten ere badu Gabiriako Udalak argazki lehiaketa

antolatze asmoa eta horretarako partaide bakoitzak gutxienez lau eta gehienez sei argazki aurkeztu beharko ditu apirilaren 9a baino lehen udaletxean.

Lehiaketa horretan parte hartzeko baldintzen berri jakin nahi duenak udaletxera jo beharko du lehenbailehen.

Hiru sari banatuko dira eta epaimahaia Kultur Batzordekoek eta argazkigintza arloko zenbait adituk osatuko dute.

Gabino Murua

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

IDIAZABAL

Badator Korrika

Martxoaren 24an iritsiko da Korrikaren 11. edizioa Idiazabala. Inaustitik hasita, Kale Nagusitik barrena plazara arteko bidea egingo du. Plaza zeharkatuta berriro ere behearantz bidea hartuko du. Katetik Segura aldeara joango da.

Korrika iritsi aurretik ordea haren inguruko ekitaldi ugari izango da asteburu honetan. Idiazabalgo Korrika batzordeak ondoko egitaraua prestatu du:

Martxoak 12, ostirala:

21:30ean: Mus txapelketa azkarra Mujika jatetxean. Jokua 4 errege, 6 hamarreneko eta 3 usteletara izango da. Bost sari banatuko dira: lehendabizikoa, jasotako diruaren %40, txapela eta kopa. Bigarrena jasotakoaren %20 eta 2 Whisky botilla. Izena emateko epea gaueko 9,30etan bukatuko da.

Martxoak 13, larunbata:

13:00etan: Zirika Irratiak Korrikari buruzko saio berezia egingo du (FM-ko 99.3an)

22:30ean: Herriko artisen jaialdia. Txalaparta, herriko abesbatza, txistulariak, dantzariak, bertsolariak, trikitilariak eta abeslariak arituko dira lehenengo zatian. Bigarrenetan Mikel Telleria herriarraren eta bere taldearen emanaldia izango da.

Martxoak 14, igandea:

16:30ean: Euskarazko zine emanaldia Kultur Etxean.

18:00ean: Buruhandiak giroa berotuta, eta doan txorixo egosia jan eta kupeletik sagardoa edateko aukera.

Nikaragutatik albistek

Mitch hurakanak eragindako hondamendiari aurre egiteko herrian bildu ziren 4 milioiak badute helburu jakina. Edurne Aranburuk jakinarazi du dirua Gobernu Kanpoko Erakunde (ONG) bati eman diola. Erakunde hori Kilalfn (Nikaragua iparraldean) dagoen San Bartolo herria berreraikitze proiektua ari da gartzen. Auzolanean 101 etxebizitza berri egiteko asmoa dute, horietatik 26, Idiazabalen bildutako diruarekin eraikiko dira.

Dirua ONG bati ematea erabaki du Edurnek ondoko arrazoiak bitarteko: *"Gobernuak jasotzen duen dirua azpiegitura eta obra handiak egiteko erabiltzen dute (...) ONGei emandako dirua zuzenean behar den lekuetara iristen da"*. Edurneren esanetan laguntza gehiena komunikabideetan agertu diren lekuetara iristen da eta beste hainbat tokitan behar larriagoak dituzte.

Nikaragua iparraldean zebilela jakin zuen Edurnek San Bartoloko proiektuaren berri eta dirua beraiei ematea erabaki zuen. Gironako Salt herritik eta Frantziatik iritsitako diruarekin osatuko da proiektua. San Bartoloko anaikidetzeko komiteko presidentek gutun bat helarazi dio Antton Irizar alkateari eskerrak emanez. Eskutitzean idiazabalدار guztiei eskerrak ematen zaizkie eta hemengo laguntzari esker, ezer ez duten 92 familik berriro ere bizitzen hasteko modua izango dutela jakinarazten du.

Artzantza eta gazta Idiazabalen

Udalak eta Gazta batzordeak egindako beka deialdiaren oinarriak hauek dira:

1. Lana taldean edo bakarka egin daiteke.
2. Lanaren proiektua aurkeztu beharko da Idiazabalgo Udaletxean, 1999ko apirilaren 30a baino lehen. Aurkezten diren proiektuen artean, epaimahaiak bat aukeratuko du, eta astebeteko epean jakinaraziko du nor den aukeratua. Jasotako proiektuek baliorik ez dutela erabakiko balu epaimahaiak, beka deialdia bertan behera geldituko litzateke.
3. Egileak sobre itxian ezizena jarrita aurkeztuko du lan proiektua. Beste sobre batean ezizenari dagokion benetako izena azalduko du. Proiektuak, lanaren aurkezpene, eskema, helburua eta laburpen bat bilduko ditu.
4. Aukeratzen den lana, 1999ko abenduaren 17rako aurkeztu beharko da Udaletxean. Epaimahaiak, beka hutsik utzi dezake aurkeztutako lanak mailarik ematen ez duela erabakitzen badu.
5. Lanak, makinaz edo ordenadorez idatzita egon beharko du. Gutxienez 50 orri izango ditu, DinA-4an, 2ko tartearekin.
6. Epaimahaiak honako hauek osatuko dute: Gazta Batzordea, Aita Iparragirre ikastetxeko zuzendaria, Artzai Gazta Elkarteko teknikaria, zenbait aditu.
7. Beka 250.000 pezetakoa da eta lana bukatu ondoren emango zaio egileari.
8. Idiazabalgo Udalaren esku geratuko dira saritutako lanaren jabetza eta eskubide guztiak. Eta baita lana burutze erabilitako dokumentazio, grabazio nahiz argazkiak.
9. Idiazabalgo Udalak, ikerlanak argitaratzeko ardura eta eskubidea izango du.
10. Deialdi honetan parte hartzeak, araudi honekiko adostasuna erakusten du. Edozein eztabaida sortuta ere, Idiazabalgo Udalak izango du azken erabakia.

Gizarte bide

Izen hori du Udaletxeko Gizarte Sailak argitara eman duen aldizkariak. Bertan herrian eskura dauden gizarte zerbitzuen berri ematen da. Lehendabizikoa alea ezintasunei buruzkoa da.

Gas biltegia

Repsol taldeak herrian barreiatuta dauden gas biltegiak, herrigunetik kanpo bildu nahi ditu deposito handiago batean. Eusko Jaurlaritzak herriko gas sarea egin dezan baimena eman dio dagoeneko Repsol.

SEGURA

Atsedeneko txapelkunak

Otsailaren 26an jokatu ziren elkarteak karten finalak. Puntuari Luixa Aldanondo eta Milagros Alustiza izan ziren irabazleak. Tutean Arturo Gonzalez eta Joxe Ormazabal. Musean Eulojio Albisu eta Ximon Garaialde.

Bolatan irabazle

Gipuzkoako txapelketan Txuri-urdirin otsailaren 7an izandako saioan Imanol Agirre geratu zen lehenengo 49 birla jota. Antonio Agirre 2. (46). Goierrikoan, otsailaren 6an Idiazabal, 2. egin zuen Martxeliño Agirrek.

Errejonialak lehenengo

Liga amaitzeko 8 partiduren faltan, lehen postuan dira Iñaki Albisu herriarrak zuzentzen duen taldeak. **Asteburuko emaitzak:** Errejonialak: Segura 5-3 Ordizia. **Jubenilak:** Beti Onak 1-2 Segura. **Kadeteak:** Tolosa 1-0 Aizkorri. **Infantilak:**

Iparra-Hegoa: asteburu bete-betea

Elorri Elkarteak Udala eta tabernarien laguntzaz antolatatu duen Iparra-Hegoa asteburu honetan izango ditu ekitaldi nagusienak. Egitarau zehatza 10-11 orrialdeetan.

Jaien egingo den euskal ezteien antzeko ekitaldia 1971ko ekainaren 25ean egin zen herriarrek parte hartuta, argazkian ikus daitekeen modura. Fotozharreko argazkia ere ordukoa da.



Aretxabaleta 0-1 Aizkorri. **Asteburuan etxean:** jaian, 11:00etan infantilak, Aizkorri-Elgoibar; 16:00etan jubenilak, Segura-Ondarroa.

Labur-labur

● **Iker Agirrezabal** estatu mailako 4. (37.36) geratu zen 300 metrotan, otsailaren 28an Donostiako belodromoan.

● **Pelota:** Zutik torneoko 3 partidu jokatu dituzte herriko taldeek, gaur, martxoak 12, gaueko 10etan Baratze

pilotalekuan.

● **Alkoholiko anonimoak** taldeak antolatuta 3 alkoholiko ohiren hitzaldia gaur, martxoak 12, Kultur Etxean 19:30etan.

● **Kirol Eskolarra:** Martxoaren 14an, eskualdeko ibilaldi neurtua Ordizian.

● **San Jose kofradia.** 300 urteetan datorren tradizioari jarraituz, martxoaren 19ko meza ondorenetan Ospitalpean jarriko den mahaian egongo da Laureano Telleria

urteroko kobraketak egiteko.

● **III. Gazte Topagunea.** Informazioa 10. Orrialdean.

● **Atsedeneko batzarra.** Martxoaren 21ean, 13:00ean. Urteko balantzea eta junta berritzea.

● 40 urtetan funtzionatu ondoren **Guraso Elkarte** ixtera doa.

● **San Joan** antolatzen lehen bilera martxoaren 17an egingo da iluntzeko 7etan Udaletxean.

Joseba Telleria

Korrikaren inguruan zenbait ekitaldi

Martxoaren 24an Korrika 11 gure herriak pasatzen dela eta batzorde bat ari da lanean. Deia pasa zitzaien talde eta erakundeetatik, Herri Eskola, Musika Eskola, Gazte Asanblada, Jarrai, Elorri, HB, EA eta EAJ dira bertan aritu edo ari direnak.

Patata tortila txapelketa.

Martxoaren 21ean eguerdiko 12:30etan hasita herriko plazan. Lehiaketa herriko elkarrekin artean planteatu bada ere, beste edozein koadrila, talde edo herriarrek ere parte har dezake (sua eta materiala norberak eramanda). Gonbidapena herriko elkarte guztiei egin zaie. Sariak: elkarte irabazleari Joxe Mari


Telleriak egindako oroigarria. Herriar irabazleari Herri Eskolako haurrek egindako. Sariak plazako ileapaindegiko erakusleihoan jarriko dira. Epaimahaia: herriko tabernariak. Sagardoa eta trikitixa ere izango dira. Kuestazio eguna eta Korrikako materiala jarriko da.

Joseba Intxaustiren hitzaldia. Martxoaren 23an, iluntzeko 7,30etan, Joseba Intxausti idazle eta euskaltzale herriararen hitzaldia kultur etxean. **Gaia: 'Euskararen lehena, oraina eta geroa'.**

Korrika eguna. Ordutegia erabat zehaztu gabe badago ere, arratsaldeko 3ak aldera-

ko espero da. Kendu parean idiazabaldarrei hartu, herri buelta eman eta Ugalde inguruan mutilorrei pasako zaie euskararen lekukoa. Aurretik, Herri Eskolako eta Aterpetzeko neska-mutikoei Korrikari ongi etorria adieraziko dioten ekitaldi burutuko dute plazan.

Kilometro erosleak. Herriko erakunde, elkarte, talde eta enpresei kilometro bat erosteko gonbidapena egin zaie (40.000 pezeta eta lekukoa eramateko aukera). Momentuz, Gazte Asanblada eta Elorri izan dira erosi dituztenak.



Joseba Intxausti, 3. Korrikan lekuko eramale izan zena, hizlari izango da 11. Korrikan.

LAZKAO

Martxoaren 24an dator Korrika



Orain bi urteko Korrikan jende askok hartu zuen parte Lazkaon, eguraldiak ere lagundu zuen.

Abian da jadanik Korrikaren 11. edizioa, martxan da eta bizirik bi asteen zehar euskararekiko konprometua erakutsiko duen ekitaldi erraldoia. Bi asteen zehar Euskal Herriko txoko guztiak pasako dituen haizete fresko hau martxoaren 24ean iritsiko zaigu Goierri eta egun berean, noski, Lazkaora ere.

Korrikaren etorrera girotzeko, ekitaldi batzuk antolatu dira herrian. Lehenik martxoaren 13an arratsaldeko 6etatik aurrera kuestazioa edo diru bilketa egingo da herriko plazan. Bertan izango dira giroa berotzeko Lazkaoko Talogileak, Antzar Gazteak txaranga, eta danborrada ere ikusteko aukera izango dugu. Martxoaren 14an, igandea, Oin Arin dantza taldeak dantza saioa eskainiko du eguerdian.

Martxoaren 23an, asteartea, Korrika Txikia ospatuko da Lazkaoko haur guztientzat. Arratsaldeko 4,30etatik aurrera herriko haurrek jolasez eta abarrez gozatzeko aukera izango dute eta ondoren, beraintzako espreski prestatutako Korrika Txikian parte hartuko dute. Azkenik, martxoaren 24an, asteazkena, Korrika pasatuko da Lazkaotik eguerdiko 2ak aldera. Aurtengo edizioa, Senperetik etorriko da, eta bariantetik Lazkaomendiko bidegurutzeraino joango da aurrea, ondoren, Dukearen palazio ondotik pasako da eta Areso alderako norabidea hartuko du, bertatik, Gurutze auzora zubia zeharkatuz eta hemendik plaza aldera zuzenean. Plazatik pasa ondoren, Beasainerako norabidea hartuko du Korrikaren 11. edizioak.

Talo ikastaro arrakastatsua

Goierriko Euskal Eskolak antolatu zuen talo ikastaroak, arrakasta nabaria izan zuela esan daiteke, bai jende aldetik eta batik bat bertan sortu zen giroagatik. Hamahiru lagunek parte hartu zuten ikastaroan eta amaiera eman zion afarian berriz, 40 lagun inguru bildu ziren. Aipatu beharra dago gainera, Bertatik Bertara telebista programakoak, grabatzen izan zirela, bai talo ikastaroan eta baita emakumearen eguna ospatzeko egin ziren tailerretan ere.

Ikusentzunezkoak eta abar

Martxan dira jadanik Kutzak lagundurik, Udalak, Maizpidek eta Goierriko Euskal Eskolak antolatzen dituzten ikusentzunezko, hitzaldi eta musikaldiak. Oraindik egitaraua zehazteke dagoenez, tokian tokiko eta garaian garaiko informazioa orri hauen bidez pasako dizuegu.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga

Udalak jakinarazi nahi dizue herritar guztiei, trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga martxoaren 1etik maiatzaren 15erako tartean ordaindu beharko dela. Horretarako, astelehenetik ostiralera goizeko 9etatik

2etara udaleko bulegoak zabalik egongo dira. Larunbatetan ere, aukera izango da bulegoetara inguratzeko, goizeko 9etatik 12etara.

Maiatzaren 15erako ordaindu ez dutenei % 20ko gainkargua ezarriko zaiela ere adierazi beharra dago, inork sustorik hartu ez dezan.

Labur labur

● Euskal presoen egoera salatzen **argi itzalketa** egingo da gaur, martxoak 12 gaueko 10etatik 10,15etara. Senideak eta Gestorek bultzatutako ekimen honek alderdi abertzaleen onespina izan zuen martxoaren 4ko plenoan.

● **Zuhaitz eguna** ospatuko da bihar larunbata, martxoak 13, goizeko 11,30etan kanposantu azpiko zelaietan. Bertako zuhaitzak landatuz ospatuko da eguna biharkoan.

● Gaur, martxoak 12, arratsaldeko 7etan **festak prestatzeko bilera** bat gehiago egingo da herriko gazteenkin.

● **Festen programako azala** aukeratzeko lehiaketa oraindik martxan dela gogorarazten dizuegu. Martxoaren 23an bukatuko da lanak aurkezteko epea, hain zuzen.

Urko Irastorza

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak
filtoak, olioak, engraseak
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



KEMEN KIROLAK



BEASAIN

Jose Zufiaurrek 'Beasaingo mendiak eta errekek' liburua aurkeztuko du

Martxoaren 16an, 20:00etan, Jose Zufiaurrek bere azken lana aurkeztuko du Udal-etxeko Batzar Aretoan: 'Beasaingo mendiak eta errekek'. Liburuan herriko 26 mendi tontor eta 36 erreka bildu ditu, bakoitzaren



ezaugarriekin eta egileak berak egindako argazki banarekin. 11x17 zm.tako neurria du eta mendian bai motxilan, bai poltsikoan, eramateko aproposa da.

Egileak berak azaldu duenez, ez da etxeko apaletan edukitzeko liburua, praktikotasuna bilatu nahi izan du, eta horretarako Beasaingo mapa bat ere erantsi diote. 26 tontorrak, 36 errekek eta mendiko bideak non eta nondik nora kokatuta dauden ikusgai geratzen da. Gainera mugarriak non dauden ere zehazten du egilea. Mapa zabaldu egiten da, eta horrela mendi edo erreka bakoitzaren testu eta argazkia ikustearekin bat, mapa ere ikusi daiteke. Testuak oso zehatzak dira, ur-iturriak non aurki daitezkeen zehatz-mehatz adierazten du. Testuak euskaraz eta gazteleraz daude idatzita, Andoni Sarriegiren itzulpenarekin.

Mendi txikiena, Galardi

Jose Zufiaurrek adierazi digunez, jendea gehien harritzen duena Beasainen 26 mendi eta 36 erreka daudela jakitea da. Mendi garaiena Murumendi da 855,5 metroekin, eta txikiena Galardi 222,3 metroekin (Beasain-

go tunelaren gainean dagoena). Beasainen lur gehien bustitzen duen ibaia Oria da, 3.800 metroekin. Baina 26 mendi eta 36 erreka izan arren, Jose Zufiaurrek 300 toponimo inguru bildu ditu. Berak dioen bezala, erreka batek hainbat izen izan ditzake. *"Orain dela 100 edo 200 urte erreka pasatzen zen lekuetan bakoitzak bere izena jartzen zion. Hori gertatzen da Mariarats errekarakin: "Jaiotzen den lekuan Ametzurdinetako erreka da, beherago Errekailun da, eta gero Mariarats baserria zenera iritsi baino zerbait gorago, orduan Mariarats". Horregatik daude 'Beasaingo mendiak eta errekek' liburuan 300 toponimo eta ez 62. Galdeketa eta baserritarrekin elkarrizketak izan dira datu horiek guztiak biltzeko Zufiaurrek erabilitako metodologia.*

'Beasaingo mendiak eta errekek' liburuaren ale bat eduki nahi duenak dohan jasoko du aurkezpenaren egunean. Bestela, hilaren 22a eta 26a bitartean, Ezkiaga Auzo Etxean jaso ahal izango du, Kultura Batzordeak kaleratzen duen 'Laister' aldizkarian 11. orrialdean dagoen fitxa eramanez, eta 500 pezeta ordainduz.

Argi itzalketa

Gaur, martxoak 12, gaueko 10etatik 10,15etara argi itzalaldia egingo da Euskal Presoen eskubideak aldarrikatzeko. Itzalaldian Udalak ere parte hartuko du. Udalak Senideak eta Amnisiaren Aldeko Batzordeak izenpetutako mozioa onartu zuen, alderdi abertzaleen eta IU-EB alderdien botoekin. Ildo berean, martxoaren 6an, manifestazio ixila burutu zen Euskal Presoak Euskal Herrira ekarri, zigorraren 3/4ak beteta ditzutenak eta gaixotasun sendaezinak dituzten presoen askatasuna eskatzeko.

Asmuberen egoitza berria

Beasaingo emakumeen elkarteak, Asmubek, Emakumezkoen Nazioarteko Egunean egoitza berria ireki zuen Oriamendi kalean (Odol-emaileen elkartearen toki berean). Inaugurazioarekin eman zioten hasiera egun horietarako prestatutako ekitaldiei. Martxoaren 8an hasitakoari gaur emango diote amaiera Liernin emakumezkoentzako antolatutako afarian.

'Dakota' antzezlan

Gaur gaueko 22:15etan Tanttaka antzerki taldeak 'Dakota' antzezlan euskaraz taularatuko du Usurbe Antzokian. Protagonista bere ametsek etorkizuna iragartzen dutela pentsatzen duen haginlari bat da. Horrela, bere iragarpenak benetakoak diren ala ez jakiteko estrategia xelebreak prestatuko ditu. Zuzendaria kataluniarra da, Josep Maria Mestres, eta aktoreak euskaldunak: Ramon Agirre, Joseba Apaolaza, Aitzpea Goenaga eta Jose Ramon Soroiz.

Jaietako egitarauaren azala

Aurreko alean Loinatz jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan lanak aurkezteko argitaratutako epea okerraren; otsailaren 26aren orde, martxoaren 26a baita azken eguna, eguerdiko 1ean. Bestalde, Manuel Diaz 'Navarro'ri egindako elkarrizketan ere "lehen maila" jartzen zuen lekuan "lehen taldea" behar zuen jarri. Barkatu eragozpenak.

Kronikarako oharra

Kronikarako oharren bat eman nahi duenak San Inazio kaleko Erosle Hiru denda utzi dezake.

Odol-emaileen 1998ko agiria

Beasaingo Odol-emaileen ordezkariak pozik agertu da 1998. urtean jasotako odolarekin. Urte osoan zehar 3.305 emailetatik 1.174 joan ziren odola ematera, nahiz eta horietatik 1.046 lagunek bakarrik eman ahal izan zuten. Uda tarterko hilabeteak dira odol-ateratze gehiago jasotzen dituztenak, uztaila eta iraila. Gutxienak martxoa eta azaroa. Iaz ere beren helburua lortu zutela gaineratu dute Odol-emaileen ordezkariak: Gipuzkoan odola inori falta ez izatea. Bestalde, 27 urteren ondoren apirilaren 25ean Gipuzkoako Odol-emaile elkartearen urteroko batzarra Beasaingo Antzizar kiroldegian ospatuko dela iragarri dute.

Jon Ordoñez Garmendia

Nisa Goiburu pintorea, espazioan murgildurik

Nisa Goiburu ordiziarraren oleoak daude ikusgai Ordiziako Barrenako erakustokian, martxoaren 18ra arte. Paisaiak espazioan kokatzen ditu Nisak, irudi geometrikoak, bolumenak eta hutsuneak erabiliz. 52 urte ditu Nisak eta Tolosan bizi da aspalditxotik. Bilboko Abad Agirre galerian ere badu erakusketa, Guggemheinen gertu-gertuan.



- Nola deskribatuko zenuke zure pintura?

- Oso zaila da deskribitzea. Definizioak normalean kanpokoek, ikusleek ematen dituzte. Nik normalean figuratiboa aitzakia bat bezala erabiltzen dut. Konposizio batzuk nahikoa abstraktuak dira. Geometria asko erabiltzen dut eta dena lotuta dago, figuratiboa bakarrik ere ez da. Gero eta gehiago abstraktuan sartzen ari naiz. Estilo nahasketa asko daukat, hasi errealismo magikotik, surrealismoraino.

- Arkitektura eta pintura lotzen dituzu.

- Jendeak horrela irakurtzen du. Geometria erabiltzeak arkitektura markatzen du. Irudi geometrikoak erabiltzen ditut. Espazio aldetik bilatzen dut geometria. Es-

pazioa gauza guztietan bilatzen dut. Ez dut margotzen aurrean ikusten dudana etxea; baizik eta etxe horri espazioan leku bat ematen diot. Konposaketa nik egiten dut.

- Aldaketarik izan al duzu zure estiloan?

- Oso piskanaka etortzen da. Pinturak bere eboluzioa behar du, pertsona batek bezala. Barrundik ateratzen dena eboluzionatzen da. Espazioa, bolumenak eta hutsuneak erabiltzen ditut. Al-

datzen joan naiz eta nire lehenengo koadroetatik hona asko aldatu da. Beti gauza berari ari gara bueltaka, espazioa unibertsoaren barruan, materia baino gehiago gara. Gazteagotan ez zara horretaz konturatzen, baina zerbait intuitzen duzu. Orduan lehenengo intuitzio horiekin hasten zara lanean eta piskanaka garatzen joaten zara. Gero eta galdera gehiago sortzen dira. Gauza batek bestera zaramatza. Mugimenduan dago-

ena eta naturako elementu ezberdinak bilatu eta elementu horiei espazioan forma ematen diezu.

- Artea gizartetik hurrin dagoela esaten da. Jendeak ulertzen al ditu zure koadroak?


- Behin kontzeptu txiki batzuk adierazita, jendeak ulertzen ditu nire koadroak. Jendeak beti ateratzen ditu bere sensazioak. Oso pinturara lasaia dela diote, bakea ematen duela... Nik gauza bat egiten dudanean ez naiz pentsatzen jartzen jendeak zer esango duen. Jendeak gauza hauek esaten dituenen, seinale zerbait transmititzen dela.

- Estilo hau nondik jaso duzu?

- Lana egitearen poderioz. Ikasketak utzi nituenean nire aldetik hasi nintzen eta gauza batek bestea dakar. Bukaera bat dago eta beti hara hurbildu nahi duzu.

- Nondik datorkizu pinturarako zaletasuna?

- Inklinazioak hartzen joan nintzen txikitatik. Behin nire ama ikastetxera, monjatarra, joan eta, ikasteko ez nuela balio baina pintatzeko balio nuela esan zien. Orduantxe emakumea zerbait egiten hasi zen eta horrela hasi nintzen. Donostiara joaten nintzen ia egunero. Garai hartan, maisu partikularrekin ikasi behar izaten zen pintatzen.



ILEAPAINDEGI MISTOA

- ✓ **Solarium** 4.500 pta. 10 saioko bonoa
- ✓ **Depilazioa**
- ✓ **Kolore eta permanenteak**, astelehen, astearte eta asteazkenetan %5eko deskontuaz

Rekartalde, 30 ☎ 943 88 34 86 BEASAIN

iñAUSTI

KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

Pub **YUBER** Pub

Zaldizurreta K. BEASAIN



1971ko euskal parada Seguran

1971ko ekainaren 25ean euskal parada edo euskal boda ikuskizuna antzeztu zuten Seguran. Jermanene aurrean ateratako argazkia da honakoa. Goiko ilarakoak kalekumeak dira eta behekoak baserritarrak. Beraien izenak, goitik behera eta ezkerretik eskubira, hauetxek dituzue: Iñaki Telleria, Pello Arrieta, Luli Telleria, Joxe M. Goia, Luix Oiarbide, Joxe Agirre, Felix Lardizabal, Ramon Agirre, Xalbador Agirre eta Joan Joxe Olan.

DIETETIKA ETA ELIKADURA

*Nafarroako Unibertsitatean
diplomaturatutako dietetista*

- ✓ Dieta pertsonalizatua
- ✓ Gantz konposaketen neurketa
- ✓ Ur edukinaren neurketa
- ✓ Kolesterol, diabetes, ipertentsioa, e.a.
- ✓ Giharren neurketa e.a.
- ✓ Elikadura eta kirola

Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Badator, badator...

Korrika




*Inoiz baino gehiago, EUSKARA bizi dadin,
bizi gaitezen EUSKARAZ*

Atxekimendua azaldu duten Udalak

Altzagako Udala
Aramako Udala
Beasaingo Udala
Ezkio-Itsasoko Udala
Gabiriako Udala
Gaintzako Udala
Idiazabalgo Udala
Itsasondoko Udala
Lazkaoko Udala

Legorretako Udala
Mutiloako Udala
Olaberriako Udala
Ordiziako Udala
Ormaiztegiko Udala
Segurako Udala
Zaldibiako Udala
Zeraingo Udala

Martxoak 24
Goierri
Ibilbidea eta
ordutegiak





Zurezko egitura tratatuak:
Haritzezkoak
Elondozkoak
Abetozkoak
Alertzezkoak
Neurri guztietako tarimak

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKEKO AURRERAPEN GUZTIAK



GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.

Tel: 629 46 95 26 Faxa: 943 16 10 32
 Maiuz Industrialdea, 26. pab. ORDIZIA

AURREKONTUAK
NEURRIRA